



ARGIA

BERDINTASUNA EZ DA INPROBISATZEN

**MUNDU OSOAN KANTATZEN DUTE EMAKUMEEK BAT-BATEAN.
OZTOPO BERAK ARI DIRA GAINDITZEN**



» ZUBEROA: EUSKARAZKO LEHEN HAURRESKOLA

» MASA TURISMOAREN ONDORIOAK VENEZIAN



02517

9 778402 139093

Datorren astean

Larrun 211

www.argia.eus/larrun



FRANTZIA ETA ISIS, MENDEBALDEA ETA EKIALDE HURBILA

**NILS ANDERSSON: "GERRA SIRIAN DAGO, MENDEBALDARREK
TOKIKO DIKTADOREA ATXIKI NAHI DUTELAKO"**

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 June Fernández
- 20 Angel Erro
- 21 Iván Giménez
Edu Zelaia
- 22 Pako Sodupe



Lurraren orbitan pilatuz doa satelite eta bestelako gailuen hondakinak. Espazioko zaborraren arazoari konponbideak bilatzen ari zaizkio orain.

- 40 BIZI BARATZEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 43 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
TXELIO ALCÁNTARA
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 14 | Aritz Galarraga: "Ez nuen Euskal Herri txiki batean bizi nahi Bartzelonan" / Miel A. Elustondo
- 24 | Paramilitarren eta ultraeskuindarren enpresa bat, etxe-kaleratze estrajudizialak egiten / Blanca Todó (La Directa)
- 29 | "Homeopatia ura eta azukrea baino gehiago da" / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
- 30 | Turismoak itoko du Venezia / Xuban Zubiria Elexpe
- 32 | Grian Ni Dhaimhin, Irlandako gazteen egoeraz solasean / Martin Mendizabal Garai
- 34 | Espazioko zaborra: Atzoko teknologia, gaurko hondakinak / Hegoi Belategi
- 38 | Xübükota haurtzaindegia: Euskaraz ari dira Zuberoko txikienak / Onintza Irureta Azkune
- 44 | Eskolek itzuli diete emakumeei tradizioak isildutako ahotsa / Estitxu Eizagirre Kerejeta

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARU DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Ander de la Hoz, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Sara Arruabarrena, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde. **Ikerketa:** Andoni Zulaika.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoko: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

Egarriari eta denborari aurre egin dion herria

Himba herriaren jatorrizko lurretan, Namibia eta Angola artean, azken 30 urteetako lehorterik larriena bizi dute. Beren kulturaren errotuta dagoen usadioari jarraiki, zaharrenak egunero biltzen dira herrixka guztietako erdigunean dagoen sutondoan ura aurkitzeko lekurik onena zein den eztabaidatzeko. Ombentjiyane Kukandjuriak (argazkiko emakumea) lehortuta ez dauden putzuak bilatzeko gero eta urrunago joan behar du. "Nire seme-alaba eta ahuntzentzako behar beste ura lortzeko, egunean hirutan joan behar dut ur bila. Bakarrik uzteak beldurtzen nau, jakina. Arrisku asko daude hemen, baina ez dago beste konponbiderik", dio.

Testua eta argazkia: Xavier Aldekoa



“Obamak dio beltzen bizitzek garrantzia dutela. Baina ez du bermerik jartzen hala izan dadin”

Patrisse Cullors, Black Lives Matter mugimendukoa

argia.eus/multimedia



Busti webTB (EHZ 2016)

Busti emankizuneko eta Topatuko lagunek elkarlanean Euskal Herria Zuzenean jaialdian egin duten jarraipen berezia.



Igandean, arratsaldeko bostetan

Ipar Irlandako bake prozesuaren inguruko dokumentala, TV3, ETB eta K2000-k elkarlanean sortutakoa.

Erraustegiaren lapurreta? Ez nire izenean!

Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Uztailaren 28an, ez bada tartean trumoi handiren bat, egingo dute –ez da gertatuko berez, norbaitek norbaitentzat zerbaiten truke eginen du– Zubietako lapurreta handia, gaur hasi eta 2051 arte Gipuzkoan biziko diren herritar guztiak zorpetuko dituen ebasketa itzela. Eta nik diotsuet diru publikoen lapurreta: ez nire izenean.

Esku artean daukat Deloitte “aholkularitza” (sic) enpresak GHKri prestatutako “Informe de fiscalización previa del gasto y certificado de existencia de crédito”, zeinaren 8. orrialdetik aurrera kontatzen den guri eta gure ondorengoei eta gure ondorengoen ondorengoei nola pagaraziko dizkiguten uztailearen 28an perpetraturiko den zor alferrikako eta ilegítimo berriaren ordainak, zaborraren kontratisten preso geratuko diren gure udalen bitartez. Zeren eta gure udalek 2051 artean...

– ezingo dizkiote hondakinak beste inori saldu edo eman, ezta askoz prezio edo sistema hobek aurkituta ere.

– udalentsat zor horren ordainketak lehentasuna edukiko du beste edozein



DANI BLANCO

gasturen aurretik, berdin dio sozial edo beste.

– udalen batek zorretan baleuka zaborren kontratistekiko kuotaren bat, Diputazioak deskontatuko dio bere diru-iturrietatik.

– udalek ezingo dute aurrekonturik onartu baldin eta ez badu GHK-k segurtatzen zaborren kontratisten urteko ordainketak lehentasunez lotuta daudela.

– udalen batek GHKtik irten nahi badu, pagatu beharko dio –separatzearen gastuekin– 2051 arte onartutako kostua eta bera joateagatik gainerako udalei eragindako edozein aldaketa.

Uztailaren 28an Zubietako erraustegiaren esleipena sinatuko duzuen Foru Aldundiko, GHK-ko, mankomunitateetako eta udaletako agintariok: alternatiba garbiago, merkeago eta osasungarriagoa badela ondo demostratu denean, egin beharrik ez dagoen erraustegia eraikitzeke zor ilegítimo bat onartzera zoazte, kontratista pribatu handiei opari egiteko Gipuzkoako instituzioak eta herritarrak kaltetzera zoazte, erabaki kriminal bat onartuko duzue.

Ez nire izenean!


“Altxamendu hau Jainkoaren opari handia da guretzat”

RECEP TAYYIP ERDOGAN, TURKIAKO PRESIDENTEA

Estatu kolpe saiakerak indarra eman dio Erdogani. 6.000 atxilotze baino gehiago, ia 3.000 epaile eta fiskalen kargugabetzea, heriotza zigorra ezartzeko asmoa... Gobernuak kontrola eta errepresioa areagotuko dituen beldur dira asko eta asko. Presidentearen hitzetan, “altxamendu hau Jainkoaren opari handia da guretzat, armada garbituko baitugu. Traizioa izan da, eta garesti ordainduko dute”. **2016-07-16**




Emakumeek batez beste 7.710 euro gutxiago irabazten dute urtean, Hego Euskal Herrian



Infografia:
Garbine Ubeda
Goikoetxea

- Eragin zuzena
- gizarte prestazioetan:
- erretiroan eta
- langabezian,
- **Aldi partzialean**
- **betetzen den**
- **enpleguaren 3/4**
- emakumeek
- betetzen dute.
- Onarpen sozial txikiko
- jarduera sektoreetan
- emakumeak dira nagusi;
- alegia, **balorazio eta**
- **ordain-sari eskasa**
- **duten lanpostuetan.**

Gizon eta emakumeen arteko soldata-arrakala Europako Batasunean (2014)



Emakumeek gizonek baino **%24 gutxiago** irabazten dute, batez beste



%24
gutxiago

Batez beste, munduan

%33
gutxiago

Asia hegoaldean

%30
gutxiago

Afrikan, Sahararik behera

%23
gutxiago

Lurralde garatuetan

%22
gutxiago

Asia erdialdean eta Europa erdi eta ekialdean

%20
gutxiago

Asia ekialdean eta Ozeano Barean

%19
gutxiago

Latinoamerikan eta Kariben

%14
gutxiago

Ipar Afrikan eta Ekialde Ertainean



EKINKLIK

“Saturazio mediatikoak albo-ondorioak ditu”

Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Sanferminetan 17 sexu eraso salatu dituzte eta eraso sexisten aurkako aldarria inoiz baino ozenago entzun da jai giro betean. Bilgune Feministako Idoia Arraizak saturazio mediatikoaren arriskuez hitz egin digu.

“Bisibilizazioak balio du konturatze-ko benetan zenbat eraso dauden eta zein larria den gai hau –azpimarratu du Arraizak-. Horretarako behintzat balio izaten ari da hedabideen lana. Hala ere, uste dut orain beldur gehiago sentitzen dutela emakumeek, neska batzuek hala esan didate, orain beldur gehiago sentitzen dutela. Lehen agian lasaia ibiltzen ziren, eta ikusita eraso gehiago daudela (edo hobeto esan, gertatzen direnak ikusita, zeren gehiago ez dira gertatzen), beldur gehiago dute. Oso arriskutsua da. Albo-ondorioa da, kalterako da. Emakumearen biktima papera areagotzen da. Horregatik, oso inportantea da erasoak bisibilizatzearekin batera (alegia, orain egiten dena egiten jarraitu behar da), emakumeen ahalduntzearen aldeko mezuak bidaltzea, beldurra areagotzea saihesteko. Zein

mezu bidal daitezke? Erasoetan emakumeek izan duten jarrera txalotu; txalotu salatu izana; txalotu eraso osteko shock egoeran erasotzaileak identifikatzeko gai izatea; askotan emakumeak bere kabuz ateratzen dira egoera horietatik eta ez da kontatzen, bada hori ere txalotu. Berriz diot, oso inportantea da fokua bortxaketetan soilik ez jartzea (nahiz eta epaileak frogak behar bortxaketa dela esateko), baizik eta baita bortxaketa saiakeretan, eta batzuetan abusu mailan geratzen diren egoera horietan ere. Egoera horietan emakumearen jarrera benetan erabakigarria da ez iris-teko ezer larriagoa izatera. Emakumeak defendatu egiten dira edo ihes egitea lortzen dute. Kasu horiek kontatu behar dira, eta horrelako erreferenteak behar ditugu. Horrek balioko du emakumeek sinesteko gaitasun asko ditugula egoera horietatik ateratzeko edo egoera horiei aurre egiteko. Beraz, alde batetik, erasoetatik atera diren emakumeak bisibilizatu, baita jarrera aktiboa hartu duten ondokoak ere. Bestetik, beti indartu autodefentsa feministaren filosofia, edo defentsarako dugun eskubidea. Horrelako mezu positiboek emakumeen ahalduntzea bultzatuko dute”.

EKONOMIAREN TALAIAN

Mesedeak ordaindu egiten dira



Juan Mari Arregi

Europar Batasuneko erakundeen jardunak, justiziaren arlokoak barne, baieztatu du beste behin klub hori merkatarien, hau da, banku eta multinazionalen zerbitzura dagoela. Bere lobbyek hartzen dituzte erabaki gehienak, europarren eta herritarren interesen aurka.

Joan den astean, Europar Batasuneko abokatu nagusiak irizpen ez loteslea amaitu zuen. Bertan dio Espainiako Estatuko bankuek ez dutela hipoteken gaineko gehiegizko zoru klausuletatik kobraturiko guztia itzuli beharko. Espainiako Auzitegi Gorenak agindu zuen epai batean 2013ko maiatzaren 9tik aurrerakoa baino ez zutela ordaindu behar bankuek, eta Europak berretsi du itzuli beharrekoa epai horretatik geroztikakoa behar duela. Horrek dakar bankuen sektoreak 5.000 milioi euro aurreztuko dituela. Arrazoa? Zenbait bankuk porrot egin dezaketela diru guztia itzuliz gero. Ez da kontuan hartzen kalteturiko bi milioi herritarrek eskatutakoa justua den ala ez.

Modu horretan, Europako “justiziak” sentiberatasun harrigarria erakutsi du bankarien interesetik, ez ordea milaka milioi euroko iruzurraren biktima izan diren biktimizekiko, etxegabetze ugari eta suizidioen zerrenda luze eta beldurgarria eragin duen arren, baita Euskal Herrian ere.

Behin betiko epaia urte amaieran jakingo dugu, baina honen zain zeuden banku askok garaipentzat hartu dute eta burtsetan nabaritu da hori. Merkatarien Europak horrelaxe funtzionatzen du, jo eta su. Zerbaitetarako ari dira lanean lobbyak. Halako Europak kezka gutxi du hipotekek kalteturiko milioika lagun horiengan. Hori bai, Goldman Sachs moduko merkatariak lanpostua eskaintzen diete Durao Barroso EBko presidente ohia moduko jendeari. Mesedeak ordaindu egiten dira, bai ondo ordaindu ere!

Alferreko eta inposatutako azpiegituren aurkako jardunaldiak

BAIONA. Behar Gabeko Proiektu Erraldoi eta Inposatuen Kontrako Foroa (irudian, kartela) lehen aldiz etorri da Euskal Herrira seigarren edizioan. Hiru egunez, Baionako Itsas Elkartaren egoitzan, eta Ipar Euskal Herriko Attac-ek, Bizi elkar-teak, CADEk eta Notre Dame des Landeseko euskal komiteak antolatuta, inposatutako eta alferreko azpiegituren gaineko gogoeta egin dute larrialdi klimatikoaren tes-tuinguruan. AHT, hondakinen tratatzea, merkataritza gun handiak eta erresistentzia egiteko eskubi-dea eta zilegitasuna izan dituzte mintzagai, besteak beste.



Genero berdintasuna ikasgaia Galiziako eskoletan

Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Irailetik aurrera, eta hala eskatzen duten ikastetxeetan, genero berdintasunari buruzko ikasgaia izango dute 12-14 urteko ikasleek Galizian. Astean or-dubeteko iraupena izango du eta erabaki aitzindaria da Espainiako Estatuan.

Gai transbertsala

Parekidetasuna curri-culumean eta ikasgai guztietan modu transbertsalean lantzen dela gogoratu dute Xuntatik, baina horri eskaintza berri hau gaineratuko diotela, gaia espezifikoki jorratzeko. Hautazko ikasgaia izango da.

Jorratuko dutena

Berdintasun gaietan gazteak kontzientzia-tzea, diskriminazio egoeren aurrean kritika bultzatzea, halakoak saihesteko prebentzioa sendotzea edota genero eta sexu-joera anitzak aberastasuna direla azpimarratzea izango dituzte mintzagai.

Helburuak

Galiziako Xuntatik espero dute ikastetxe askok egingo dutela bat ekimenarekin eta aukeratuko dutela ikasgaia. Helburuak ere argi dituzte: gazteak baloreetan hezte eta "denontzat eskola justuagoa" lortzea.

ERASOA NIZAN



3

hilabete gehiago luzatuko du Frantziako Gobernuak Salbuespen Egoera, Nizako eraso eta gero. Uztailearen 26an bukatu behar zuen neurriak pertsonen eta ibilgailuen zirkulazioa murrizten du, besteak beste.

10.000 militar mobilizatzea ere erabaki du Gobernuak, Sentinel Operazioaren bidez.



18.000 EUROKO PENTSIOA ETA LANPOSTU BERRIA

Europako Batzordeko presidente ohi Jose Manuel Durao Barroso Goldman Sachs-en hasi da aholkulari, eta lan berriko soldatari gehituko dio aurreko karguaren pentsioa: 18.000 euro hilero, bizi artean.



GORRITI ETA BERE ANIMALIAK

"Gorriti eta bere animaliak" ikuskizuna salatu du Equok: "Sokamuturrak txahalekin, basurde txikien harrapaketak eta oilarren arteko borrokak" egiten dituztela eta "animalien babesperako araudiak" daudela dio alderdiak.



KUTXABANK

Bi urteko kartzela zigorra eskaerapean epaituko dituzte Kutxabankeko presidente ohi Mario Fernandez, Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkari ohi Mikel Cabieces eta Rafael Alcorta abokatuak, dokumentuak faltsutzea eta desleial jokatzeko leporatuta.

80 urte ondoren inpunitatea nagusi Espainian



Xabier Letona

@xletona

UNEAN UNEKO indar harremanek finkatzen dute herrialde edo gizarte baten memoria, areago gatazka bortitza edo gerra bat tartean dagoenean. Horrexegatik esaten da historia garaileek idazten dutela. Francoren 1936ko altxamendua eta harrez geroztik gaurdaino Espainian bizi izandakoa horren adierazgarri bat gehiago da. Lehenik eta behin, 40 urteko diktadura frankistak mokadu batean irentsi zituen galtzailleen egia, justizia eta erreparazioa.

Nazio Batuen Erakundeak Francoren erregimena “faxistatzat” jo zuen 1946an, batez ere “Hitlerren Alemania naziak eta Mussoliniren Italia faxistak emandako laguntzarekin finkatua” izan zelako. NBEren 39. ebazpen haren iritzi “ez zuen Espainiako herria ordezkatzeko”, “indarraren gainean” eraiki zelako. NBEren iritziak jai izan zuen, ordea, AEBetako onspenaren aurrean. Franco aliatu bat gehiago zen “mehatxu sobietarrari” aurre egiteko eta amerikarren onspenak, NBEko gainerako herrialdeena ekarri zuen erreskadan, indar ez legitimoaren gainean finkatutako estua izan arren.

NBEren ebazpen hartatik 68 urtera, PPren eta PSOEn Espainia harro dago Trantsizioaren bidez Espainiak egindako bidez. Nazioarteko erakunderik garrantzitsuenak, aldiz, errieta gogorra egin zion Espainiari NBEren Giza Eskubideen XXVII. Kongresuan 2014an. Bertan aurkeztutako bi txostenek argi adierazten zuten frankismoak Espainian zuen inpunitateaz, batetik, eta Espainiako Justiziak nola oztopatzen zuen frankismoko eta Gerra Zibileko garaiko krimenen ikerketa, bestetik. Ez zen lehenbiziko aldia, 2012an ere NBEko goi mailako ordezkariak gogor salatu zuten PPren Gobernuaren politika egia eta justiziarekiko. Beste na-



zioarteko erakunde batzuk ere kritiko azaldu dira Espainiaren jarreraz, esate baterako 2006ko ebazpenez Europako Kontseiluko Parlamentariaren Batzarreko Batzorde Iraunkorra; edo aurten bertan Europako Kontseiluko Giza Eskubideen Goi mailako Batzordea.

36KO GERRAKO 114.226 desagertu daude oraindik lurperatuak. Mundu mailan hobi komun gehien dituen bigarren herrialdea da Espainia, Kanbodiaren ostean. 30.960 ume lapurtu zituen frankismoak eta erregimenaren aldeko familiei eman zizkien horietako asko, baina ez da ikerketa judizialik bideratu gertatutakoa argitzeko eta haurrek egiazko identitatea berreskuratzeko. Esklabo gisa erabili ziren 400.000 presoekiko eta berauek erabili zituzten enpresei buruzko ikerketa judizialik ere ez da ireki.

Espainiako Justiziak krimen hauei buruzko ikerketa judizialik egiten ez duenez, Maria Servini epaile argentinarrek egin ditu hainbat justizia unibertsean oinarrituta. 2014aren amaieran Servinik 18 pertsonen estradizioa eskatu zuen

eta 2015ean Espainiako Gobernuak ukatu egin zizkion. Espainiako Auzitegi Nazionalak horietako biri deklarazioa hartu zien eta pasaporteak erretiratu. Chistof Heyns, Ariel Dlitzky, Juan Mendez eta Juan E. Mendez NBEko goi komisionatuek gogor kritikatu zuten Mariano Rajoyren Gobernuaren erabakia. PPko buruzagien hitzetan dozenaka mespretxuzko adierazpen aurkitu ahal ditugu hemerroteketan frankismoaren biktimez, “hilobiekin astunak direlako” edo 1936ko Gerra Zibilean kontua ez delako “gaizto eta onen” artekoa, besteak beste.

EUSKAL GATAZKAREN memoria, justizia eta egiaren bidea egiten ari da urteotan Euskal Herrian. Bere arazorik handiena ez da ezker abertzaleak ez duela autokritikarik egin nahi edo ETAK ez duela armarik entregatu, baizik eta galtzaile eta irabazleen eskeman erakia dagoela. Eta, beraz, borondate on ugariren gainetik, ondorio nagusiak ere ikuspegi horretatik finkatzen ari direla. Horregatik, esate baterako, Espainiako Estatuak ez du inoiz onartuko sistematikoki torturatu duela. ■

KRONIKA GISA: 2016KO SANFERMINETAN, ALKOHOLEMIA-KONTROLA EZARRIA ZUTEN ESPAINIAR ETA FRANTZIAR POLIZIEK IRUÑERRIAN



ORDU TXIPIETAN ESPERMA BARREATZEN DUTE HIRIKO ATARIETAN, NORMALIZAZIO eta BIZIKIDETZA-MARKA GISA

Edgard Pisani, hil da Pitrauren eta Iparraldeko laborarien laguna Parisen



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

2006ko Lurramaren ugazaita izandako Edgard Pisani politikari frantsesa hil da 97 urterekin. Frantziako estatuaren zenbait une historiko barnetik bizitua –alemanen kontrako erresistentzia bezala Kaledonia Berriko burujabetasun gatazka– Europako nekazaritza politiken sustatzaile izan ostean azken hamarkadetan oso kritikoa izan zen. Iparraldeko baserritarrek bazuten berekin lagun on bat Parisen ondo kokatua.

Bizi izan balitz eta enteratu nor goresten zuten Atharratzeko pastoralean uztailearen 24an, Edgard Pisani oroitzapenek Euskal Herrira eramango zuten berriro. LARRUNek JohaÑe Pitrauri eskainitako zenbakian (*Laborari menditarrek esnarazi zituen lider zuberotarra*) Madalena mendi tontorrean 1962an eginiko argazkian ageri dira bi gizonak, Pisani ministroa eta Pitrau.

Pisani prestatzen ari zen Frantziako nekazaritzarako legedi berria, eta Pauen eginiko bileran Atharratzeko sindikalista gazteak liluratu omen zuten. Ministroak haren iritziak gertuagotik azaltzea proposaturik, Pitrauk erantzun: “Zurekin biltzeko prest nago baina ez jauregi batean, zatoz mendiko laborariak nola bizi diren ikustera”. 54 urte geroago, *Jean Pitrau* pastoralala estreinatua baino hilabete lehenago hil da 97 urterekin Pisani.

Mixel Berhokoirigoinek egin dio gorazarre *Laborari* astekarian: “*Pisani, la disparition d'une grande figure*”. Esker ona aitortu dio Berhokok, bera eta Euskal Herriko Laborantza Ganbara Frantziako estatuak 2009an epaileen aurrera eraman zituztelarik publikoki elkartasuna erakutsi zielako Pisanik. Aurretik ere Iparraldeko baserritarrei bere atxikimendua erakutsia zien, 2006ko Lurrama feriarenean ugazaita izatea onarturik.

Edgard Pisaniren hil ohar luzeak plazaratu ditu Frantziako prentsak (“*Mort d'Edgard Pisani, résistant et ancien ministre de De Gaulle et de Mitterrand*” titulupean *Le Monde*) eta Wikipedian ere

badu azalpen zehatza. 1918an Tunisian sortua, gaztetan Parisera iritsi eta goi funtzionario izateko ikasketak burutu zituen. Alemanen kontrako erresistentzian aritu zen: 1944ko abuztuan Parisko prefektura berreskuratzeko borroketan hartu zuen parte, frantsesez *Paris brule-t-il?* eta espainolez *¿Arde París?* titulaturako filmean Michel Piccolik jotzen zuen Pisaniren papera.

Gerra bukatzerako suprefeta kargua lorturik, Frantziako agintearen goi mailatan ibiliko zen karrera profesional osoan barrena: Barne ministroaren kabinete buru 1946an, ondoren prefeta, Defentsako kabinete buru, Lurralde Antolamendurako goi kontseiluko kide, 1953an senatari ageri François Mitterranden ondoan, ondoko urteetan hainbat dossier handiren arduradun, hala nola energia nuklearrari buruzkoan...

1961ean Michel Debrék Nekazaritzako ministro izendaturik, George Pompidouekin kargu berean egon zen estreina eta ondoren Etxebizitzaren eta Ekipamenduen ministro. Urte horietan guztietan, Frantziako karguak pilatzea ohikoa denez, segitzen zuen departamendu batetik edo bestetik hautetsi izaten, diputatu batzuetan, senatari bestetan, goi mailako funtzionario beti.

Politikan luzaz De Gaulleren gizona izanik, ezkerreko gaullista, 1974an Alderdi Sozialistara pasatu zen, hurbilago berrikitan hil den Michel Rocardengandik Mitterrandengandik baino: “Gaullismoa ezkerretik utzirik Alderdi So-

zialistan eskuinetik sartu eta azkenean PSren ezkerrean bukatu dut... Baina ez dut uste ni inoiz leku beretik aldatu naitzenik”. 1981etik Europako parlamentariaren biltzarrerako ere hautatu zuten eta laster Europako Batzordeko lehendakariorde ere bai.

1984an abertzale kanakiarrek sutan zeukaten Kaledonia Berriko egoera bideratzeko ardura eman zioten. Ministro postutik negoziatu zuen Jean-Marie Tjibaou lider historikoarekin “*independence-association*” deitu formula, hainbat polemika eragin zituen. 1988tik 1995era bitartean Mundu Arabiarren Institutuaren buru aritu zen. Erretreta hartu ondoren ere, Frantziako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren kide egon zen Pisani.

Herrien elikadura burugabetza

Nekazaritzan eduki duen garrantzia Berhokoirigoinek azaldu du *Laborarin*. Pisani ministro kargutik bizi izan zituen 1960ko hamarkadan Frantziako eta Europako laborariak ezagututako aldatea nagusiak. Alde batetik hiritarrek go-goan zeuzkaten gerra osteko gosetea eta arrazionamendua: bestetik nekazariak bizimodu duina eskatzen zuten, beste langileekin parekatzea. Testuinguru horretan sortu zen PAC Nekazaritza Politika Bateratu famatua, 1960ko hamarkadatik Euskal Herriko Iparraldeko landa eremuetako bizimodua eta paisaia errotik aldatu zituen.

Laborantzako produkzioa handitzea –benetako helburu nagusia– lortzeko





Argazki historikoan, Edgard Pisani gaztea –26 urte– Frantziako Erresistentziaren ekintza gogoangarri batean, 1944ko abuztuaren Paris berreskuratzen ari zirela, militar alemanekin prefekturaren errendizioa negoziatzetik irteten militante armatuek babesturik. Hortik aurrera abiatuko zen Pisaniren karrera politikoa, hil arteraino Frantziako goi karguetan edukiko zuena. Nekazaritza ministro zelarik 1962an ezagutu zuen hurbilagotik Euskal Herria, JohaÑe Pitrau zuberotarraren eskutik. Geroztik, ezkerreko baserriar euskaldunek Pisani lagun edukiko zuten Parisen.

neurriak ezarri ziren PACean: prezioak bermatu edozein izanik ere ekoiztutako kopurua, mugak zaindu Europako produktuak babesteko eta Europar Batasuneko herrialdeei lehentasuna eman norberak inportatu behar izatekotan.

1960ko hamarkadan irauli zen lurra lantzeko sistema osoa, baserriak mekanizatu, lanbidea teknifikatu, landare eta abereen selekzioan aurreratu. 30-50 hektareako baserriak behar ziren, horretara bideratu ziren nekazari gazteen formazioa, lurraren antolamendua, egitura administratiboak, legeak eta arauak. Aldaketaren oztopo ziren egitura zahartikuei aurre egiteko, Pisani ministroak bilatu zuen mugimendu kristauek sortutako lider eta talde gazteen laguntza. Hala aurkitu zuen Euskal Herrian JohaÑe Pitrau la-

borari eta aktibista gaztea, solaskide egokia.

Baina Europa kapitalistaren hazkundeko urrezko aroa agortzen hasi zenean, dio Berhokoirigoinek, 1980ko hamarkadatik aurrera Pisanik adieraziko zuen laborantza politika batek bere helburuak lortu dituen jakin behar dela aldatzen, norabide berean jarraitzeak ez zuela ekarriko gehiegizko produktzioa, kutsadura handitzea eta finantzazko itotzea baizik.

Nekazaritzako produktuen liberalizazioaren kontra, herrien elikadura burujabetza aldarrikatu zuen. 2006ko Lurraman mintzatu zelarik, *Gara* egunkariak honela bildu zuen Pisanik zaharrak esana: "Frantziako eskualde guztietatik, Euskal Herria da gizakiaren eta naturaren artean eta landa eremuaren eta hiriaren artean lotura estuena aurkitu

dudana. (...) Zuek sinetsi egiten duzue egiten eta esaten duzuen. Nekazaritzako erakunde askok zerbaitetan ari diren plantak baizik ez dituzte egiten, oinarrian ezer aldatu gabe. Zuek egin egiten duzue esan duzuen eta esan egiten sinesten duzuen".

Pisanik Lurraman aitortu zuen ez zela baikorra nekazaritzaren etorkizunaz, gaur nagusi diren sistema produktibistek desorekak handitzen dituztela mundu osoan, laborariak bortxatuz baserriak utzirik lan bila hirietara joatera. Bereziki aipatu zituen Asia eta Afrikako nekazariak, gosez ez hiltzearen hirietara migratu beste biderik ez dutenak: "Hau gelditu beharra dago. Gosez dagoen jende hori hezi dute burua makurtze eta obedientzian, baina iritsiko da eguna esango dutena: 'Horrela ezin dugu jarraitu'". ■

zuri begira

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f Instagram

Aritz Galarraga, irakaslea

«Ez nuen Euskal Herri txiki batean bizi nahi Bartzelonan»

ARGIAko kolaboratzaile fina Bartzelonatik Aritz Galarraga unibertsitate irakaslea. Hamaika ditu, gatz eta piper, parte hartzeak han eta hemen. Ongi etorri beraren kritika minak, beti eta gehiengan errespetuz, ironiaz eta umorez eginak.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Herrialde Katalanetan bizi izanagatik ere, testuak han eta hemen publikatzen dituzu. Bost elkarrizketa baino gehiago egin, eroso ez zuzeneko solasaldian?

Erosoago idatzizkoaren lurraldean. Azken urteotan egin dudana lanari begiratzea aski da horretaz konturatzeko. Alegia, idatzizkoa landu dut gehienbat, eta idatzizkoaren lurralde horretan bertan ere heterogeneo jardun dut, era askotako testuak produzitu ditut, eta ez naiz ahozkoan trebatu, ez naiz abila, bertsolariaren sen eta etorririk ez dut, eta horrela, erosoago ibili behar idatzizkoan.

Katalanak badu ahozko jario errazik?

Bai, dudarik gabe. Katalanak hemengoa baino hezkuntza-egoera egonkorragoa du, hiztun kopuru handiagoa –hamar milioi, diote azken inkestek–, tradizio finkatuagoa bai literaturan bai ahozko erregistroari dagokionez. Ahozkotasuna landuagoa du katalanak. Haien eta gure arteko diferentzia nabarmena da hango hiztunak normal hitz egiten duela katalan estandarizatua, edozein egoera eta erregistrotan, eta hemengoa, aldiz, ez dela horretarako gai, oraindik. Hartu

Barçako futbolari katalan hiztuna: maila bera du katalanez eta espainolez. Bestetik da zein den futbolariaren maila hori, zertaz hitz egiteko gai den ostikolaria edozein hizkuntzatan ere, terreno labankorra hori.

Kar, kar...

Hizkuntzaren erregistro, aberastasun eta naturaltasunari dagokionez, gaitasun bera du –Piqué batek, adibidez–, katalanez zein espainolez. Ez da gure kasua: hemen, euskara hiztuna euskaraz ari delarik, eskas ditu hiztegia, ohitura eta naturaltasuna. Alde handia dago hango eta hemengoen artean. Bi hizkuntzen arteko ezberdintasun handietako bat.

Nola segitzen duzu Bartzelonako urrunetik hemengo herrialitatea? Inori irakurria dio hitz hori ere, herrialitatea...

Fisikoki leku batean egonagatik ere, ez da zaila bestenon edo nongo aktualitatea jarraitzea, eta are gehiago, aktualitate horretako parte izatea. Badakit garai batean kasik ezinezkoa zela hori, hau da, gaur egun nik egiten dudana egitea. Nire bizimodua ez da, finean, Honda-

ribian bizi denaren zeharo bestelakoa: denbora asko pasatzen dugu ordenagailu aurrean, eta beraz, internet, telefono eta gainerako tramankuluen bidez komunikazioa momentukoa da. Esaterako, egunean zehar, ia gehiago hitz egiten dut Euskal Herriko jendearekin, Kataluniakoekin baino, dela whatsapp bidez edo bestelakoz.

EHUko Psikologia Sozialeko irakasle emeritu Sabino Aiestaranek ontzat ematen du sare bidezko harremana, baina, urtean behin bada ere, bilera fisikoa behar dela dio.

Bai, harremanak oso diferenteak dira birtualak direnean, osoki, edo, aldiz, presentzia fisikoa ere badutenean. Harreman birtualak puntu bateraino heltzen dira. Hortik aurrera, zuzeneko harremana behar da: elkar ikustea, elkarrekin egon eta hitz egitea... Horri dagokionez, Bartzelonan egoteagatik nik ez dut nire burua gutxiagotua ikusten. Hemen dagoen nire gisako pertsona baten modura bizi naizela esango nuke: irakasle eta kazetari prekario batek, hemen, nire bizimodu bera –edo oso antzekoa–, duela pentsatzen dut.



Aritz Galarraga Lopetegi

1980, Hondarribia

Literatura ikasketak egin zituen. Bartzelonako bi unibertsitatetan euskal kultura irakasle da 2006an hara zenez geroztik. Katalunian izanik ere hemengo hainbat hedabidetan kolaboratzen du, ARGIAN, *Berria*-n, *Erlea*-n, Euskadi Irratian eta bestetan. Luma-zorrotza da, bilorik gabe idazteko joera du, zurian beltz, distantziak eman ohi duen liberearen jabe. Doktore tesiari ekiteko puntuan da katalanera itzulitako euskal literaturaz. Katalana du emaztea eta bertan jaiok bi seme-alabak, partez katalanak, partez euskaldunak.

Zer da erbestean bizitzea baina, begi batekin bada ere, norberaren herrira begira ematea eguna?

Tautologia hutsa da, baina kanpotik begira bizitzeak horixe ematen dizu, kanpotiko begirada. Ez zaude saltsaren erdian, eta horrek ikuspegi ezberdina ematen dizu, nahitaez. Musika emanaldi bat bertatik bertara jarraitzen duenak eta telebistaz edo irrati jarraitzen duenak ikuspegi ezberdina duten moduan. Ez da ez hobe ez okerragoa, baina ezberdina, behintzat. Nire intuizioaren arabera, ikuspegi sanoagoa ematen du distantziak. Ordenagailu pantaila ere ez da berdin ikusten bi zentimetroko distantziatik, edo hogeita hamar zentimetrokotik. Kanpoan egonda, zure ikuspegiari beste bat eranstean diozu: zauden leku berri horretako ikusmoldea. Begirada ireki eta kritikoa izanez gero, handik eta hemendik jasotzeko prest egonez gero, utzi duzun lurraldearen gaineko ikusmoldea ere osatzeko aukera izan dezakezu.

Herialde Katalanak eta Euskadi. "Anai zaharren lur gazte" zioen Xabier Letek *Canço a Catalunya*-n.

"Anai" orduan, "senide" litzateke orain, politikoki zuzen mintzatuz. Kar, kar... XX. mendean izan da senidetariki bi herrion artean, eta orain ere bada. Esate baterako, ni seguru nago neroni euskalduna ez banintz diferente ikusiko ninduketela han, bi herrion harreman historiko horrengatik, hain zuzen. Baina harreman horren norabidea aldatu egin dela ematen du: garai batean katalanek euskaldunei zieten miarresen horrek -axalekoa, nahi bada, akritikoa-, bira eman duela iruditzen zait. Kataluniako egoera politikoa lehen lerrora igaro da, eta orain euskaldunok gara hara miarresenez begira bizi garenok. Egoera politikoa jotzen duen ildotik jotzen duela ere, ordea, bi herrion arteko afinitate edo konplizitateak iraungo duela uste dut, nahiz eta uste baino ahulago den afinitate eta konplizitate hori.

Hari ahula, zure ustez.

Bai, estatu beraren mende gaudela partekatzen dugu, bi herriotako gizartearen parte handi batek soberania desioa izatea. Bestela, Kataluniak eta Euskal Herriak ez daukate ikustekorik.

Soberania desioa aipaturik, zertan da "Kataluniako prozesu soberanista"?

Nik esango nuke ez dela existitzen, ez da prozesu soberanistarik, hori inoiz existitu bada, prozesurik inoiz existitu denik ere zalantzan jartzen baitute batzuek, eta ez naiz bereziki espainiazaleez ari. Gaur egun ez dago prozesurik, nire ustean, pasa den iraileko hauteskundeek prozesu horrek aurrera egin dezan gehiengo sozial nahikorik erakutsi ez zutelako. Plan bat aurkeztu zuten, estatu egitura jakin bat sortzeko epeak... baina ez dago horrelakorik, ez dute Espainiako jurisdikzioarekin konfliktuan sartu nahi izan, soberanismoaren bidean gehiengo den Junts pel sí-k ez du desobedientziaren bidean pausorik eman nahi... eta, ondorioz, dena delako prozesua ez aurrera ez atzera dago. Bestalde, gobernua osatzeko istiluak izan ziren, eta gobernua osatuta zegoenean, aurrekontuak ez dizkiote onartu.

Ez arre, ez iso.

Bai, bada. Ez dago gehiengo sozial nahikorik aurrera egiteko. Gehiengo handi bat dagoenean lortzen dute herriek soberania osoa.

Hemengo herrietan galdeketak egiten ari dira.

Jendea soberanismoa ekartzeko modua izan liteke, aspirazio logikoa, bestalde. Herrietan egin diren galdeketak onuragarri izan litezke masa jakin bat osatze aldera, baina horrek ez du soberanismoa ekarriko, funtsezko oinarria zera delako: horren alde gehiengo soziala egotea, eta Euskal Herrian horrelakorik ez dago. Eta Katalunian ere ez, hauteskundeek erakutsi dutenez. Horrengatik ez du prozesuak aurrera egiten.

Mobilizaziotzar handiak gorabehera?

Bai. Mobilizazioek erakutsi dute soberaniaren aldeko jendea asko dela, eta oso mobilizatuta dagoela.

Soberaniaren aldeko ez dena boto ematerakoan mobilizatzen da.

Horixe!

Unibertsitate irakasle, ohiko kolaboratzaile euskarazko prentsan, literatur kritikari *Erlea* aldizkarian, guraso... Nola eusten diozu goiari?

Osasun mentalari gutxi-asko eutsiz, esan nahi duzu? Kar, kar... Ez dago mis-



"Euskal Herrian gehiengo sozialik ez dago. Eta Katalunian ere ez, hauteskundeek erakutsi dutenez. Horrengatik ez du prozesu soberanistak aurrera egiten"

teriorik. Egunak 24 ordu ditu eta badakigu denbora finitua dela, eta beraz, beste hainbat konturi errenuntzia egin ez idazten ditut idazten ditudanak. Ez naiz morroi bakartia, ez antisoziala ere, baina lan eta egiteko horiek betetzen dituzte egunaren parte handia.

Eta suari egurra, Marx anaien film hartan bezala: tesiari buru-belarri lotuko zaitzaizkio.



Eta orduan bai, bazter utzi beharko hainbat lan. Aritmetikak ez du ematen. 24 ordu dira egunean, ez gehiago.

Ikusezinago izango zaitugu aurrerantzean, aldi batean, bederen.

Ezinbestean ikusezin, bai ikusten ahal nindutenen mesedetan, baina baita neure mesedetan ere. Ez nuke esango nirea etengabeko esposizioa denik, baina bai maiz xamarrekoa, eta tesia

tarteko dela ez da erraz izango horri eustea. Gainera, esposizio horrek ere desgastea dakar, egunero –edo maiz–, zer edo zer publikatzeko presioa eta beste.

Euskal Ikasketak sailaren baitako irakurle zaitugu Katalunian, bi unibertsitatean: Bartzelonako Unibertsitatean, batetik, eta Autonomoan, bestetik.

Baina Autonomoan dute pisurik han-

diena Euskal Ikasketek. Egia esan, Reno salbuetsita, uste dut Euskal Ikasketek munduan Autonomoan beste inon ez dutela errekonozimendu hori. Ikasleek beren gradu ikasketak osatzeko, gure ikasgaiak hartzeko aukera dute, eta Euskal Ikasketetan *minor* edo aipamen bat jasotzeko era. Alegia, ikaslea izan liteke Hizkuntza eta Literatura Katalana graduatua, eta Euskal Ikasketetan aipamena duena.

Zertan dira Euskal Ikasketak Bartzelonako bi unibertsitate horietan?

Beti uste da euskara irakasten dela –eta irakasten da–, baina hori ez da programaren zati bat besterik, eta ez handiena ere. Euskal kultura dei genezakeen horren ikuspegi globala ematen saiatzen gara, hizkuntza modu instrumentalean erakusten ahal dugu, baina, gainera, euskal kultura eta gizarteari buruzko ikasgaia dugu, euskal literaturari buruzkoa, hizkuntzaren historiarena... Euskal Herria den horren ikuspegi oso eta zeharkakoa eskaintzen saiatzen gara.

Nork jakin nahi du Bartzelonako unibertsitateetan Euskal Herriaz?

Tipologia heterogeneo xamarra dugu ikasleen artean. Badira Euskal Herriarekiko afektua dutenak, eta badira euskararekiko interes linguistikoa dutenak. Motibazio ezberdinak izan litezke: jakin-mina dute batzuek, ikuspegi osatuagoa, beste batzuek... Unibertsitate ikasketak dira, eta azken batean, gehienbat jakin-min akademikoa du ikasleak. Euskara ere irakasten dugu, baina, ikasturte batean baina bi ikasgaitan, 80 ordu lektibo dira denera. Oinarri minimo batez jabetzen da ikaslea, hizkuntzak nola funtzionatzen duen konturatzen da, ez besterik.

Ez da hemen bezala...

Ez, jakina. Hemengo euskaltegietan



**Azken hitza:
Hondarbiarra**

“Bigarren Hezkuntza edo institutua egin genuen lekukoak omen gara, eta nik Donostian ikasi nuen... baina, ez, hondarbiarra naiz”.

trebetasunak modu komunikatiboan transmititzen dituzte. Gurea ikuspegi akademikoa da –zientifikoa, nahi baduzu–, euskararen funtzionamendua gainezkoa. Ikasturtea bukatu eta hango ikasleek ia-ia ez dakite deus esaten, baina, aldiz, hizkuntzaren mekanismo orokorra zertan den ezagutzera iristen dira.

Bartzelonan bada euskal etxerik.

Bai, eta badut harremana, nahiz eta ez

beste batzuek dutena bezainbestekoa. Alabaina, Unibertsitate Autonomoko irakasle naizen aldetik zenbait ekitalditan parte hartu ohi dut urtean zehar, literatur jaialdian [Literaldia], esaterako. Oso ekimen interesgarria iruditzen zait, Euskal Herriko jendea gonbidatzen dugu eta oso harrera ona du han. Esango nuke Euskal Herrian bertan ere ez dela hainbeste urteko ibilia duen literatur jaialdirik egiten, ezta hainbeste jende biltzen duenik ere. Horrez gai-

nera, euskal etxeak musika jaialdia ere egiten du, eta zinema jaialdia ere bai.

Erreferente duzue Bartzelonako euskal etxea?

Zenbait euskaldunentzat erreferente handia da, dudarik gabe. Ezagutzen ditut euskal etxearekin harreman handia dutenak, aktiboki parte hartzen dutenak. Niri dagokidanez, ez dut lotura esturik agian euskal etxearekin, baina hara orduko nekien hala izango zela, alegia, ez nuen nahi –eta ez dut nahi–, Euskal Herri txiki batean bizi Bartzelonan. Horretarako, Hondarribian geratuko nintzen. Hara joanez gero, nahiago izan nuen bertakoa ezagutu, bertan sartu muturra, bertakoarekin bat egin, Euskal Herriko lotura ebidentea galdu gabe, jakina, eta euskal etxearekin ere harreman ona izanez eta hainbat ekintzatan parte hartuz. Esan dezagun, zilborresteari metro batzuk eman nizkiola. ■



Indarkeria matxista, ikusgaiegia?

Irratiko albistegia entzuten esnatu naiz, egunero bezala. Melillan gizon batek bere neskalagun ohia erail du, 22 urtekoa. Zaragozan senar ohiaren labankada jaso ondoren ospitalean zegoen emakumea, 32 urtekoa, hil da. Iruñeko sanferminetan beste emakume batek bortxaketa salatu du; guztira sexu abusu edo erasoekin lotutako hamabi salaketa izan dira jaietan. Nafarroako Gobernuak betiko esaldia errepikatu du: “Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunen ondorio krudelena dira”.

Ezkor jaiki naiz. Indarkeria komunikabideetan ikusgai izan zedin borrokatu dugu feministok eta, zehazki, kazetari feministok. Ez bakarrik bikote esparruko muturreko indarkeria, baizik eta hamaika testuingurutan bizi ditugun indarkeriak ere bai, udako festetan barne. Agerian dago ikusgaitasuna lortu dela, baina hedabide askoren doinuak beldurra eta samina sartzen dizkigute barruan: beste hilketa bat gehiago, beste bortxaketa bat gehiago... Kazetariak indarkeriari lakra deitzen diote, maiz harriduraz informatzen dute: “Sarraski ulergaitz hau nola eten?”, diote. Galdera erretorikoa da, hedabide gehiengentan, gehien kontsumitzen direnetan, sakoneko erreportaje kritikoak ez dira ohikoak. Orain sanferminetako “giro basatia” kritikatzan dute askok. Bitartean, edozein herriko jaietan, hamaika sexu eraso eta jazarpen izaten dira, eta Gasteizen ikusi dugu askotan indarkeria instituzional eta mediatikoa topatzen dutela biktimek.

Hona, Mari Luz Esteban antropologoak *Berrian* idatzitako artikulua baten bi pasarte: “Indarkeriaren kontrako atxikimenduen metaketa publikoak eragin handia du kontzientziazioaren areagotzean. Baina ‘saturazio mediatikoak’ ez al du inongo ondorio ezkorrik edo albo-kalterik sortzen? (...) Azaleratzen den ideia ez ote den emakumeak, finean,



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Saturazio mediatikoak ekintza kolektiboa erraztu ala blokeatu dezake. Doinuaren arabera, analisisien arabera, atsekabea eta etsipena areagotu ditzake. *Monitoreo Global de Medios* ikerketaren arabera, Espainiako Estatuko hedabideetan emakumezkoak albisteen %28ren protagonistak dira soilik, baina kriminalitate eta indarkeria albisteetan %51

ez garela gai eguneroko egoera horiei aurre egiteko gu geurez, eta estatuaren, komunikabideen edota mugimendu feministaren babesa bilatzera derrigortuta gaudela. Hau da, emakumeen kustodializazioa elikatzea, ahalduntzearen kontura orriak eta orriak bete arren”.

Alegia, saturazio mediatikoak ekintza kolektiboa erraztu ala blokeatu dezake. Doinuaren arabera, analisisien arabera, atsekabea eta etsipena areagotu ditzake. *Monitoreo Global de Medios* ikerketaren arabera, Espainiako Estatuko hedabideetan emakumezkoak albisteen %28ren protagonistak dira soilik, baina kriminalitate eta indarkeria albisteetan %51 dira. Beraz, hedabideek androgen-trismoa errotik zuzentzen ez badute, mezua hauxe da: “Emakumeak biktimek baino ez garela, hori dela gizartearen gure rol nagusia”.

Sanferminetako txupinazoan polizia ugari jarri dutela jakitean ere kustodializatzearen arriskuaz oroitu naiz. Hedabide alternatibok txupinazoko argazkiei (gizonak emakumeen gorputzak ukitzen eta arropetatik tiratzen) erreparatu genienean, kontzientzia eta jarrera aldaketa desio genuen, ez erantzun errepresiboa. Sexu eraso aurre egiteko kontrol soziala areagotzea?

Mila kezka. Ezkor nabil.

Azkenik, Angel Erroren zutabea irakurri dut (*Berrian* hau ere). Aurreko instituzioek sanferminetako indarkeria isilik mantendu nahi izaten zutela dio, jaien ospe ona defendatzearen. Aurten, aldiz, informatiboek eraso sexisten kontrako mobilizazioen zuzeneko konexioa egin behar izan dute. Festa elkartasun eta aldarrikapen bihurtu da.

Bai, egia da, Iruñeko politiken eta kontzientzia sozial mailaren saltoa ez onartzeak etsipena areagotzea dakar eta bidegabekoa da. Bidea luzea da, baina urrats sendoak ematen ari gara.

Tira, baikorrago sentitzen naiz. ■

Nazioen kontzertua

Ort: Zuek zer sentitzen zarete gehiago?

Des: Inork erantzun aurretik, gogo sartu zait zure galdera aztertzeko. Zer sentitzen garen, eta ez nola sentitzen garen. Niri askoz gehiagotan galdetu didate zer sentitzen naizen, euskaldun, nafar, espainol edo aurrekoen nahasketa bat, eta zein proportziotan, nola sentitzen naizen baino. Bigarrenik, jakintzat ematen ari gara galdera horren erantzunak nazio bat behar duela. Zilegi zait, Jordi Savallen zalea (edo kafetera bat) erantzutea? Seguru? Gainera, "gehiago" hori dago, kidetza lehentasun erlaziora behartzen duena, sentimenduek aldiberekotasunik onartuko ez balute bezala.

Ort: Tira, sarrera eder bezain ez -beharrezko hau aditu ondoren, gogo baduzue, berrar dezagun: zuek zer sentitzen zarete gehiago?

Gla: Ni, %100 euskal herritarra. Gizenik gabe, kar kar.

Nam: Ni ere bai, euskalduna, eta ez diot inori, ni naizenari buruz, eztabaidarik onartzen. Maiz gertatu zait jendeak galdetu, nik erantzun eta, gero, ezezagun bat nirea gezurtatzen hastea. Ni zer naizen nire gogoaren ondorio zuzena da, ez historiarena, ez nire arbasoen sorlekuarena, ezta nire hizkuntzarena ere. Historia, nire abizenak edo nire gurasoen aukera linguistikoa bat etortzeak, nire kasuan, ez dit arrazoia ematen ez kentzen. Euskalduna izango naiz, nire agiriek zer dioten, munduko azken puntan egon edo gizadiaren azken emakumea izanda ere.

Ube: Ba, nik bai ematen diot garrantzia gurasoen jatorriari. Nik, gero, jasotako lekuko horrekin nahi dudana egingo dut. Nire aita bizkaitarra da eta nire ama Kordobakoa...


Tho: Jon Kortajarena bezala.

Ube: ...eta, adinean gora egin ahala, gero eta gehiago damutzen zait amaren kulturari bizkar emanda bizi izana.



Angel Erro

IDAZLEA
@angelerro



Antton Olariaga

Ez ezazue pentsa ama hil zitzaidalako denik, kontua lehenagotik dator. Gaztelaniarekin eta amak transmititutakoarekin bakeak egin ditudala uste dut. Gurasoetako bat alemana banu neure burua erdi alemantzat joko nukeen bezain erdi espainol aitortzera ausartzen hasi naiz. Hori bai, inoiz galdeketa bat egongo balitz, Euskal Herri burujabe baten alde egingo nuke. Hori argi daukat.

Gla: Zergatik?

Ube: Egia esan, ezin zehazki esan. Barruko bulkada da. Jakin-mina, behar bada. Daukaguna ezagunegia da eta ez du usain onegirik. Behar bada Euskal Herri independente batek bestelako dinamikak abian jarri ahal lituzke.

Tho: Ba, ni tokian tokikoa sentitzen naiz. Erne! Horrek ez du esan nahi kosmopolita edo horrelakorik naizenik. Lisboa baldin banago, eta maiz joaten naiz hara, bertako jendearekin nahasten saiatzen naiz eta erraza zait portugesa irudikatzea neure burua, eta nortasun agirian behartuta daramadan nazionalitatearekin konparatuta, portugesa izanik zein zoriontsu izanen nintzatekeen pentsatuta goibeltzen naiz. Berdin Islandian, Kroazian edo Italian. Ankerra izan da patua. Munduan hainbeste aukera eder egonda, guk herri zapaldu ala zapaltzaile baten artean aukeratu behar.

Des: Ez duzu inoiz pentsatu portugesa edo islandiar izango bazina, ezingo zeniokeela Portugal edo Islandiaren kontsolagarriari atxiki, azkenean deskubrituko baitzenuen ez dagoela funtsean herrialde zintzorik?

Ort: Badakit nora iritsi nahi duzun. Behar bada, inongo estatua ez da beste edozein baino zintzoagoa; behar bada, mundu osoa ustela da, baina euskaldunok eskubidea izan behar genuke guk gure okerrak geurez egiteko. Zure txanda...

Des: Ni? Kafetera bat sentitzen naiz.

Ort: Horrek espainol gisa konputatzen du. ■

Nor gara gu eta nor dira haiek?



Iván Giménez
KAZETARIA
@IvnGimenez

Uxue Barkosen hitzak dira, orain dela urtebete esandakoak, inbestidura saioan: “Abertzalea ez den lurralde bateko presidente abertzalea naiz”. Beste modu batez esanda: “Gutxiengo baten partaidea banaiz ere, Nafarroako presidente izatera iritsi naiz”. Antzeko zerbait gertatu zitzaion Barack Obamari (beltzak oraindik gutxiengoak dira Amerikako Estatu Batuetan), baina Obamak ez zuen gutxiengo horretan bere burua kokatu, nahiz eta horren partaidea izan, jakina.

Barkosi entzunda, edonork pentsa dezake bide ez demokratiko bati esker heldu dela agintera. Nola da posible, bestela, gutxiengo baten ordezkaria izanik Nafarroako presidente bihurtzea?

Jakina denez, errealitate-printzipioari jarraituz, Barkosek esan nahi zuena ez zen hori, euskalduna izatea ez zela derrigorrezko bihurtuko baizik, bere Gobernuak ez zuela herritar abertzaleak fabrikatzeko asmorik. Edo antzeko zerbait. Oso bestelako irakurketa egin daiteke.

Barkos ez zen Gobernura iritsi abertzalea delako, baizik eta agintean zeudenak kaleratu ahal izateko gehiengo sozial batek bozkatu zuelako. Azken finean, *Corralito forala* babesten zutenak Diputazio jauregitik botatzea zuten helburu.

Alabaina, gehiengo sozial horretan zeuden (daude) abertzaleak eta ez abertzaleak. Eta edonon, presidente demokratiko bat gehiengo sozialari esker heltzen da agintera. Nafarroan ere hori

gertatu zen, baina Barkosek ez zuen bere burua kokatu gehiengo horren baitan, gutxiengoaren barruan baizik. Gainera, gutxiengo abertzalea epe luzerako izanen da gutxiengoa Nafarroan (ez bada betiko).

Gauzak horrela, hil ala biziko garrantzia dauka gu eta haien arteko marra non kokatzen den jakiteak. Azken finean, politika eraldatzailearen gako hor dago: nor gara gu eta nor dira haiek?

Barkosek gauzak benetan aldatu nahi dituen gehiengoaren ordezkaria izan nahi badu, ez dio abertzalea izateari utzi behar, baina gehiengo horrek zer eskatzen duen aztertu (zeren zain dago?) eta horri erantzun behar dio.

Bestela esanda: gu eta haien arteko marra nondik doan zehaztea eta nor gauden alde batean eta nor dauden beste aldean aztertzea (ziurrenik, abertzaletasunak ez du marra hori zehazten). Eta horren arabera jokatu behar du, boteretsu batzuei gustatuko ez bazaie ere. Orduan, amestutako aldaketa etorriko da, eta berearekin batera, benetako gatazka politikoa, inork ez dituelako bere pribilegioak borondate onez utzi nahi.

Jakina denez, ez dago guztion mesederako erabakiak hartzerik. Beraz, batzuen kalterako neurriak hartzerakoan (*Corralito foralaren* babesle eta onuradunen kalterako, noski), gauza bat oso garbi eduki behar da: nor gara gu eta nor dira haiek. ■

Deskonexioa: izaki bitxia da gizakia



Edu Zelaieta
IDAZLEA

Laster deskonektatzera joko dugula ari gara elkarri iragartzen: “Nolako gogoia, aizu!”. “Azer beharra, hi!”. “Eskerrak sikiera urtean behin deskonektatzeko aukera dugun”. Deskonektatzearena, bistan denez, metafora da, garai digitalari berez dagokion hitzen bidezko irudia: oporrez ari gara deskonexioaz ari garelarik.

Deskonexioa behar-beharrezkoa dugula aldarrikatzen dugu maiz etxean, lagunartean. Halarik ere, metaforarik gabeko deskonexioak gero eta urrutiago dagoela dirudi, gero eta atzerago iraganean. Interneteko konexioaren gaineko ikerketek berresten dute joera: gero eta denbora

gehiago ematen dugu sarean, konektatuta. Beste arlo batzuetan gertatzen den bezala, inork ez du portaera sozial nagusitik kanpo gelditu nahi; bazterkeriak zakar joka dezake fin bezain.

Beldurra ematen digu deskonektatuak gelditzeak, mundu fisikoa nahiz digitalean. Ez dugu izu-terminoetan adierazten normalean, baina aise suma daiteke beldur hori, marketinaren ahalak hauspotuta, bizimodua errazten omen diguten dispositibo elektronikoetan. Inoiz ez gara hain konektatuak bizi: hortik etorriko al da deskonexioaren beharra?

Izaki bitxia izaki gizakia. ■

¡Habla como Dios manda!

Oraindik orain gertatu da Gipuzkoako udal bateko aholku batzorde batean. EH Bilduko bozemailea euskaraz hasi zen bere taldearen iritzia agertzen –gaztelaniaz errepikatu ohi du euskaraz esandakoa–, eta erdaldun elebakar lotsagabe batek brastakoan lau hitz iraingarri horiekin eten zion hitza: “Gogait eragiten didazu ezin ulertuak egiten zaizkidan hitz horiekin, nori eta niri, PSEko zinegotzi naizenez, euskaraz jakin gabe eskubide guztien jabe naizen honi”.

Hitz egizu Espainiako 1978ko Konstituzioak denok jakitera eta erabiltzera derrigortzen gaituen hizkuntzan, hitz egizu kalean bezala udaletan ere nagusi den hizkuntzan, jakitera beharturik ez gauden hizkuntza lander eta zail hori bazterturik.

EAJko batzordeburuak kargu hartu omen zion iraintzaileari esanez berak ere ahalegina egin behar duela erdaraz egiteko, eta elkarrekiko begirunearen izenean, iraintzaileak berak ere egin behar lukeela ulertzeko esfortzua. Ez da, baina, hedabideetara iritsi, eta iritzi publikoan ez du aztoramenik sortu.

Udaletan euskaraz ere funtzionatzeak karga erantsia du; lehenbizi, euskaraz, maiz, laburrago, sakrifikatzea hain go-gaikarria izan ez dadin; gero, erdaraz,



Pako Sodupe

IDAZLEA

Jainkoak ez diola ezer agintzen erantzun omen zion irainduak iraintzaileari; Jainkoak ez, baina Espainia politiko eta soziologikoak bai, eta gu barru-barruan gauzkan euskal gizarte aski espainiaru honek ere bai

benetan balio duen hizkuntzan, elebakkarrak hizkuntza bakarrean patxada ederrean bizi direlarik.

Benetako egoera irmotu horrek ondorio kaltegarri larriak ditu: politikari elebidun gehienak ez daude euskaraz erdaraz bezain trebatuak, bereziki ida-

tziz, eta euskara ez da administrazioan normalizatzen; neke gehigarria du euskaraz lan egiteak, eta denok dakigu zer gertatzen den neke gehiago eskatzen duen zernahirekin: alde batera uzten dela asko baino lehen. Iraun dezakegu honela?

Itzultzaile sarea zabaltzeak onurak ekar ditzake hein mugatu batean, baina benetako irtenbidea hautetsi izateko elebidun izan beharra ezartzea da. Gaztelaniaren inposizio (azken ehun urte eta gehiagoan) tematiari euskararen inposizio guztiz bidezkoarekin erantzunez baino ezin zaio arazoari duen tamainaren arabera aterabidea eskaini, eta horretarako lehenetsun artean sartu beharra dago afera hau.

Jainkoak ez diola ezer agintzen erantzun omen zion irainduak iraintzaileari; Jainkoak ez, baina Espainia politiko eta soziologikoak bai, esango nuke nik, eta gu barru-barruan gauzkan euskal gizarte aski espainiaru honek ere bai. Neurririk hartuko al da berriro horrelakorik gerta ez dadin? Berriki onartutako Udal Legeak ez dio aterabiderik eskaintzen. Noiz helduko zaio hautetsi izateko elebidun izan beharraren eskakizunari?

Bistakoa da, erdaldun elebakkarren morroi eta neskame izaten jarraitzen dugula 2016ko urtean. ■



Liburu azoka

Ondarroan, uztailaren 22tik 31era Itxas Aurren

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!


EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 6,5€ SOILIK

ARGIA HILERO, HILEAN 3,5€ SOILIK



943 371545
HARPIDE@ARGIA.EUS
WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA

Urte osoko harpidetza	
<input checked="" type="checkbox"/> ARGIA Erean jaso nahi dut	
<input type="checkbox"/> ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ SOILIK	
<input type="checkbox"/> ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 6,5€ SOILIK	
<input type="checkbox"/> ARGIA HILERO, HILEAN 3,5€ SOILIK	



Paramilitarren eta ultraeskuindarren enpresa batek etxe-kaleratze estrajudizialak egiten ditu

Luxuzko etxe-agentzia bat eta Desokupa, Europa ekialdeko milizianoek eta arte martzialen borrokalari faxistek osatutako «etxe-kaleratzeen enpresa» bat, elkar hartuta dihardutela salatu du kanpaina batek.



Blanca Todó (La Directa)
@la_directa

2016ko apirilaren 14a, osteguna, Josep Torres kaleko 20an, Gràcia ijitoaren erdi-erdian. Arratsaldeko laurak. Zortzi gizon gihartsuz osatutako talde batek, igeltsero batez eta sarrailagile batez lagunduta, ate nagusia zulatu eta zerratu dute, erradial bat erabilia. Joan den urteko uztailean gazte-talde batek okupatu zuen ondare historiko gisa sailkatutako eraikina –1892an jasotakoa–. Urtetan abandonatuta egon ondoren, gero eta hondatuago zegoen.

Ingurua zaintzen egon da komandoa, eta eraikinean inor ez zegoela ziurtatu arte itxaron du, han sartzeko. Barrura sartutakoan, areto nagusietako, komunetako eta sukaldeko altzariak eta hormak txikitzeari ekin diote. Babes-taldeak eta hogeit bat bizilagun berehala mobilizatu, eta eraikinaren aurrean elkartu dira, eraistea galarazteko. Lortu dute, hein batean. Gizon-taldea eraikinetik atera eta ate aurrean kokatu da, Mossos d'Esquadrako ARROen (Baliabide Operatiboen Arlo Erregionala) lau furgoneta, Udaltzaingoaren bi patruila, Mossoen beste bi, eta suhiltzaileen uni-

tate bat iritsi diren arte. Suhiltzaileak eraikinaren egoera zertan den ikustera sartu dira, eta ez sartzeko aholkatu dute. Mossoek komandoko kideak identifikatu, eta haiekin berriketan jardun dute patxadaz. Haiek beren enpresa-txartela eman diete, Desokuparen telefono eta web-helbidearekin.

Arratsalde hartan, hauxe txiokatu zuen Gràcia Viva informazio proiektuak: «Etegabea izan da poliziaren eta matoiaren arteko konplizitatea. Irribarreak eta sekretuak belarrira». Gizonek kale-kantoiaren itxaron dute, eta okupatzaileei baimena eman diete eraikinetik beren gauzak ateratzeko. Handik gutxira, langile batzuek horma bat altxa dute sarreran, Norvet Property eraikuntza-entresak bultzatuta, eraikina birgaitzeko lanak hasi arte. Biharamunean, eraikinean egitekoak diren proiektua iragarri zuen entresak bere webgunean.

Gertakari horiei jarraiki, #StopDesokupa kanpaina abiarazi dute bizilagunek eta aktibistek, «etxe-jabe espekulatzaileek matoiak kontratatzen dituztela ikusarazi eta horren aurka borrokatze-

ko, eta halako jardunen jarraipena egin eta kolektiboki geldiarazteko» helburuz. Beren webgunearen bidez halako neurriak eta haien erantzuleak salatze-ko gune bat sortu nahi dute, halaber.

Eraikinaren jabea

«Norveten hitzez hitz hartzen dugu "nahi duenak ahal du" esamoldea. Proiektu batean sinesten dugunean, errealitate bihurtzen dugu. Eta hori bera egitea gomendatzen dizugu zuri. Gehien komeni zaizun etxebizitza bilatu, eta zeure egin; horretan laguntzeko ahal dugun guztia egingo dugu guk». Horixe da Norvet SL etxebizitza-agentziaren aurkezpena. Alon Younger exekutiboak kudeatutako enpresa hau «eraikin bixiak» birgaitzen espezializatuta dago 2013az geroztik. «Bartzelona gustatzen zaigunez, nortasuna ematen dioten lekuak babestu nahi ditugu. Eraikin xarmadun batek behar dituen maitasuna eta fintasuna eskaintzen dizkiogu guk merkatuari», diote beren webgunean.

Auzoan hedatutako kondairaren arabera, jabea, Agustí Agustí Atzeries,



GRACIA VIVA



1.900ean eraikina birmoldatzen ari zela behea jo eta zaharberritze-lanak bukatu ahal izateko dirua lortzeko deabruarekin ituna egin zuen. Horregatik jarri omen zioten Can Demoni “Deabruaren etxea” izena eraikinari. Atzeriesek loteria irabazi eta, bizilagunen iritzia aurka, fatxada oraindik hantxe jarraitzen duten deabru-buruez betetzea erabaki zuen.

Sareben esku geratu ostean, Roof Capital SL inbertsio-funtsak erosi zuen eraikina, luxuzko pisuak egiteko asmoz. Eraikinen salerosketan diharduen enpresak, Simón Castellá Högbom administratzailea –Banc Sabadelleko zuzendaritzako kide ere badena– buru zuela, Can Dimoniren jabetza Norvet SLren esku utzi zuen urte hasieran.

Abenduan, eraikineko biztanleek salatu zuten ustez jabeek bidalitako pertsona batzuek mehatxatuta eta zaintzapean zeuzkatela, dirua eskaini zietela eta beldurrarazten saiatzen ari zirela. Espazioaren titulartasuna zeukan Roof Capitalek hasitako jarduera haiek bere horretan jarraitu zuten eraikina Norvet SLren esku gelditu zenean. Eraikineko biztanleetako batek dioenez, Alon Younger bera gerturatu zen etxe ingurura, okupatzaileekin hitz egiten saiatzeko. «Beldurrarazteko praktika oldarkor» haiek apirilaren 14an etxe-hustuketa gauzatu zen arten iraun zuten. Desokupa *enpresa* ez da ageri Merkataritza Erregistroan, eta hango kide batzuk eraikinaren barruko modulu aurre-fabrikatu batean egon dira bizitzen bolada batean, birgaitze-lanak hasi arte espazioa zaintzeko.



Goiko argazkietan Desokuparen komandoa Can Dimoniren atean, joan den apirilaren 14an. Goian hustuketa-egunean banatutako enpresa-txartela. Ezkerrean, enpresako kide batzuk.



Ezkerrean Daniel Esteve, Morosos Bcn-ko kide ohia, apirilaren 14an, Can Dimoniren hustuketan. Beste argazkietan, Ernesto Navas, Entrelíniek programan, Jivko Ivanovekin batera gimnasioan eta galdu zuen txapelketa bateko borroka batean.



Desokuparen komandoa

Zortzi gizonkotez osatutako komando honek mugikor-zenbaki bat eta webgune bat zeuzkan enpresa-txartel bat eman zien mossosoi hustuketa-egunean. Zera irakur daiteke webgunean eta *Milannuncios.com* atari digitalean: «Desokupa. Indarrez eta alokairu-kontraturik gabe okupatutako pisuak utzarazten espezializatutako enpresa, legezko metodoak, 72 ordu baino gutxiagoan berreskuratuko dugu eraikina, penintsula osoan. %90etik gorako eraginkortasuna».

2009an atari berean irakur zitekeen zerbait oroitarazten digu iragarkiak: «Morosos Bcn. Sektorean 20 urtetik gorako esperientzia daukan profesional-taldea. Espezialistak gara ordaingabe, zor eta iruzurren kobrantzak kudeatzen. Metodo arinak erabiltzen ditugu, eta ordaingabeetan espezializatutako aholkularitza juridikoa daukagu. Kobrantza bizkorrak, fakturarik gabe eta B dirutan ere, antzinatatasunak berdin dio, geure teknika propioak erabiltzen ditugu eraginkortasun bermatuarekin, etikarekin eta legearen barruan».

Negozio biek izen bat partekatzen dute: Daniel Esteve. Haren telefono-zenbakia harremanetarako zenbaki gisa ageri da Desokuparen webgunean. Horrekin batera, 2008an Morosos Bcn-ren kontra Castelldefelsen egindako polizia-operazioan atxilotu zuten Esteve. Polizia-zirkuluetan *El segurata* ezizenez ezagutzen zuten, Bartzelona eta Eivissako festa-aretoetan segurtasun pribatuaren arloan lan egiten zuela eta, *El Periódicok* jakinarazi zuenez.

Zenbait pertsonak (Figueresetik Valentziaraino) Morosos Bcn-ko kideek «modu basatian behartu» zituztela salatu eta gero, Mossos d'Esquadra baliaketa eta estortsioen unitateak ikerketa bat ireki zuen, Gavàko 3. zenbakiko instrukzio-epaitegiak gidatuta. 2008ko azaroaren 4an, Mossos Interbentzio Talde Bereziak (GEI) Esteve atxilotzeko operazioa egin zuen, legearen aurkako atxilotaketa, irainak, mehatxuak eta zilegi ez den elkarteko kide izatea leporatuta. Polizia-operazio hark oihartzuna izan zuen, parte hartu zuen agenteetako batak urtebeteko espetxe-zigorra eta inhabilitazioa jaso baitzituen. Granada itsutzailer batekin Antonio Coscolini (Daniel Esteverekin batera ari zena gau hartan) eskuin testikulu eta ezkerrearen zati bat txikitzeagatik zigortu zuten mossosak.

DONOSTIAKO KORTXOENEA ERE PASARTE ILUNA

2015eko irailean Donostiako Kortxoenea gaztetxea eraisten saiatu ostean, bi hilabeteko erresistentzia fasea abiatu zuten. Hondeamakinak geratu egin behar izan zituzten segurtasun neurriak bete gabe aritu zirelako eta beraz, legez kanpo. Bi hilabete horietan hamaika ekimen kultural antolatu zuten eta 24 orduz jendea izan zen gaztetxean.

Azaroaren 4ko goizaldean etorri zen bigarren oldarraldia. Hiru lagun zeuden gaztetxean, gaua han pasa zutenak. "Hondeamakinak errepidean gora zetozela entzun eta leihora hurbildu nintzen, goizeko 7:10 inguru. Hori ikusita, "Badatzo! Badatzo!" oihuka hasi ginen, baina segundo gutxira, 8-10 bat gizon gihartsu, ilunez jantzita eta burua estalita, barrura sartu ziren atea kolpez irekita. Palanka batez gain, hainbatek metalezko barrak eta egurrezko objektuak zeramatzen". Horrela azaldu diote ARGIAri Kortxoenearen huste ilegala, une horietan gaztetxe barruan zeuden bi kidek.

"*¡Fuera de aquí! ¡No cojais nada!* garra-sika, behin eta berriz errepikatzen zuten. Gutako bakoitza norberaren gauzak hartzen saiatu zen, baita baliozko gauzak ere: ordenagailuak, proiektorea eta beste, baina guregana korrika etorri eta oso modu txarrean kanpora aterarazi gintuzten. Gutako kide batek adibidez, "kontuz, bizkarrean hernia bat daukat" esan eta segituan belaunarekin bizkarrean jo zuten bete-betean. Oso minduta egon zen hurrengo asteetan".

Bultzaka, eskuak bizkarraren atzean eutsiz eta eskumuturrak bihurrituz atera zi-



Ilegalki hustu ostean, Donostiako teknikariaren oniritziz, eraikina eraitsi zuten hondeamakinak.
KORTXOENEA

tuzten. Tentsio handiko uneak izan zirela gogoratzen dute. Lehenak jantzi ahal izan zuten, beste bat oinutsik aterarazi zuten eta hirugarren kidea, barneko arropa soilik jantzita zuela.

Beren artean apenas hitz egiten zutela gogoratzen dute eta oso ongi zekitela zer egin behar zuten. Zur eta lur, ezer grabatzeko astirik eta aukerarik gabe. Aurreko saiakeran bete ez zuten segurtasun neurria zen eraikina hesitzea. Bada, eraikinetik gertu zegoen auto bat gizon horien artean lekuz mugitu eta hesitzeko moduan utzi zuten". Une horretan, arduradunak hurbildu eta korrika ihesi hasi aurretik, zoriundu egin zituztela oroitzen dute.

Kortxoenea barnean zeuden pertsonak kanporatu eta minutu gutxira iritsi zen Donostiako Udaleko teknikaria. Eraikina hutsa zegoenez eta hesiak jarrita zeudenez, baietz, eraisketa has zitekeela adierazi zuten. Hondeamakinak paretak zulatzeari

ekin zitoten. Alarma deia zabaltzearekin batera, jendea hurbiltzen hasi zen eta hiru kide teilatura igo ziren, eraisketa geratzeko asmoarekin. Segurtasun enpresako kideak teilatura igo eta hauek "atxilotzen" hasi ziren, eskuburdinak jarritz.

Bitartean, desalojoa ilegala zela argi zutenek, Donostiako Udaltzaingora eta Ertzaintzara deitu zuten, agenteak joan zitezene beren begiekin ikustera gertatzen ari zena legez kanpokoa zela. Ertzaintza ez zen agertu, nahiz eta goizeko 6:00etatik aurrera Polloe hilerriaren ondoan operatiboa prest zuten. Gazteak teilatura igo zirenean bai, furgonetak Kortxoeneara joan ziren.

Desalojoa bizi zutenek argi dute eraikinean sartu zen gizon taldea eraikuntza enpresak kontratatu zuela, "arduradunekin bat eginda zeudela ikusten baitzen". Elkarri bostekoa ematen eta egindako lanagatik elkarri zorionak ematen aritu ziren.

Eskuin muturra ere tartean

Urte batzuk geroago, Mixed Martial Arts-eko (MMA) borrokalari eta diskoteketako atezain ohiak La Isla Fighting Championship SL ekitaldi-enpresa eratu du. Isla Fighting Championship txapelketak antolatzen ditu enpresak. Borroka-jaialdi horien bosgarren edizioa Vall d'Hebron pabiloian egin zen maiatzaren 15ean, MMA, K-1, Muay Thai eta boxeoko nazioarteko borrokalariak elkartu ziren.

Zenbait lekukok adierazi dutenez, Can Dimoniko hustuketan parte hartu zuten komandoko gainerako kideak gidatzen eta posizioak eta eginkizunak agintzen aritu zen Daniel Esteve, kirol-topaketa hori baino aste gutxi batzuk lehenago. Dena den, lekukoek diotenez, «beste komando bat» kontratatzeko gomendatu zion Estevek eraikinaren inguruan zebilen Can Dimoniren jabetza daukan enpresako kide bati, ez baitzekien zeuzkan gizonekin «eraikina gageuz defendatzerik» izango ote zuten.

Taldekieetako batzuk Facebookeko argazkietan ageri dira Bartzelonako eta Castelldefelseko arte martzialetako gimnasioetan entrenatzen. TV3ko *Entrelínies* saioko kapitulu bat, 2008ko otsailean emandako «Kontrolpeko indarkeria» izeneko monografikoa, ikusi eta gero taldekide horietako bat identifikatu dute Gràciako hustuketan izandako zenbait lekukok: Ernesto Navas. Ikus-entzunezko dokumentu hartan, Navas «borroketan aditua» bezala definitu zuten TV3k.

Navasek berak borroketan aritzen zela onartu, eta zera esaten zuen: «Borroketan ondo pasatzen duzu». Halere, ezkondu eta ume bat izan eta gero, «bizimodua aldatzea» erabaki zuela erantsi zuen. Camp de l'Arpako metroan hiru gazte *redskin* jipoitu eta haietako bati labankada bat sartu ondoren hasitako auzibidean hilketa-saiakeragatik zigortu zuten Navas, 2006ko urrian, artean adingabea zela. Dokumentalean bertan dioenez, bi urte eta bi hilabete eman zituen horregatik zaintzapeko askatasunean. Geroago, «birgizarteratze soziala» egin omen zuen, Muay Thai ko Chinto Mordillo munduko txapeldun ohiak Nou Barris auzoan daukan Meguro Roquetes gimnasioan bultzatzen duen bazterreko borrokalarientzako programari esker.

Gimnasio horretako argazki batzuetan *-Perro de pelea* [Borroka-txakurra] izenez ere ezagutzen dena— besoan svasitika nazi baten tatuaje handi bat ikusten zaio Navasi, eta «Rudolf Hess» nabarmen bat abdominaletan, Alemania naziko buruzagi historikoaren omenez. Desokupako egungo komandoko kideetako batzuk duela bi urte itxitako gimnasio hartan elkartzen ziren. Horien artean, Daniel Esteve eta bere entrenamentuetako laguna, Jivko Ivanov *komandantea*.

Can Dimoniko desalojoan parte hartu zuen Ivanovek. Komandantea deitzen diote zenbait gatazka armatutan parte hartu duelako: Kosovon, independentziaren aurka borrokan, edota Ukrainako gerra zibilean, Krimea Errusiar batzearen aldeko batailoietan aritu zen. Ivanov Stop Islamisation of Europe (SIOE) Islamaren aurkako Europa mailako mugimenduko kidea eta Bulgaria Alba Ortodoxa talde armatu arrazistako militantea da. ■



Jivko Ivanov (ezkerra) Alba Ortodoxa talde armatuko buruzagiarekin, Bratislav Živković (eskuina).

LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Tel 948 13 26 97
RiO Arga Kalea 28, 31014 Iruña
lua@luark.com

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)

SIGACUS

943 453 588 · www.sigacus.com

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

Ukazioak sendatzen

“HOMEOPATIA URA ETA AZUKREA BAINO GEHIAGO DA”

Luc Montagnier 2008ko Medikuntzaren Nobel Sariduna eta 300 mediku bildu ditu Homeopatiaren VII. Kongresuak Donostian. Homeopatiaren oinarriak ezagutarazi, hura zientifikoki frogatu eta zalantzak argitu dituztela kontatu digute Txusa Balbas eta Iñigo Altuna adituek. Balorazio positiboa egin arren, “eszeptizisten zauriak” aipatu dituzte behin eta berriro.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak

Homeopataren lan moldea zein da?

Txusa Balbas: Lehenik, kontsultara datorren pertsona nor den eta zergatik sufritzen duen jakiten saiatzen naiz, zerk eragozten ote dion bera den bezalakoa izaten. Homeopatia interesgarria da osotasunaren araua aintzat hartuta diagnosi eta tratamendu indibidualean oinarritzen delako: egoera soziala, bizi-penak, elikadura eta abar. Horri guztiari emango zaio irtenbidea.

Medikuntza ulertzeko modu bat baino gehiago dago...

T. Balbas: Luc Montagnierrek gauza eder bat esan zuen elkarriketa batean: “Beste zientzien ikuspuntuak onartzen ez dituen dogmatikoa da, ez da zientzia”. Zientziak ikuspuntu orori irekita egon behar du.

Iñigo Altuna: “Lau pertsonatik bat homeopatarengana joaten da. Oso gutxi dira homeopatiaren oinarriak irakurri eta konbentziturak datozenak. Medikuntza ofizialean soluziorik aurkitu ez dutenak dira gehienbat”.



Homeopatia sendagaia dela frogatu egin behar al duzue?

I. Altuna: Bai, azken aldian haren kontrako erasoak jaso eta sinesgarritasuna galtzen ari garelako. Kongresura, esaterako, medikuntza eskolatik zein Osakidetzatik ez da inor azaldu, eta instituzioetatik ere oso gutxi. Nobel Sariari apenas ahotsik eman zaion. Hedabideek ere eszeptizismotik lantzen dute gaia.

T. Balbas: Ez dugula zientifikoki demostratzen, iruzur egiten dugula, bezeroak tentelak direla, homeopatia ura eta azukrea besterik ez dela... Etengabe ari dira zabaltzen horrelako mezuak.

Zer dago horren atzean?

I. Altuna: Multinazionalen esku dago medikuntza. Industriari berdin egiten ditu aspirinak edo armak. Inolaz ere ez zaie komeni homeopatia bultzatzea. Europan %60 gehitu da sendagai homeopatikoen kontsumoa. Hor dago gakoa. Osasuna bigarren planoan geratzen da sarri.

T. Balbas: Ez ginatke harrizko eraso hauen guztien atzean denok ezagutzen ditugun sinadurak baleude: multinazional farmazeutikoak, energetikoak edota arma trafikatzailak. Finean, medi-

Donostiako kongresuan parte hartu duten medikuetako batzuk, Txusa Balbas tartean (kamiseta gorriarekin).

ku batek zein interes izan dezake beste ikuspuntu batetik lanean ari den kide bati errespetua galtzeko?

Kongresuak, beraz, bultzada eman dizue.

I. Altuna: Moralki indar handia eman digu, bai. Homeopatiak medikuntzan lekua duela erakutsi digu.

T. Balbas: Pertsona adimentsu batek beti egin behar du zalantza, gaiaz informatu eta gauza berriak probatu. Duela gutxi zirujauak ez zuten medikuntzan lekurik eta gaur ezinbestekoak dira. Alemania, Frantzia, Ingalaterra eta Suitzako ospitaleetan onartuta dago homeopatia.

Zeintzuk dira osasuntsu bizitzeko gakoak?

T. Balbas: Osasun egoeran kokatu eta hura garatu behar dugu, elikadura eta ohitura osasuntsuak medio: lasaitasuna, alaitasuna, bizitzeko gogo... Medikuntza ez da bakterioa bilatzera mugatzen. Gizakiak bere buruarekin, inguruarekin eta naturarekin dituen harremanak behatu behar ditugu. ■

TURISMOAK ITOKO DU VENEZIA

“Itsasoak jango du Venezia” zenbat aldiz entzun ote dugun. Erresuma zaharrak badu itsasoa baino arazo handiagorik: XXI. mendeko neurrigabeko masa turismoa. Gaur egungo turismo eredu horrek Venezia eta bertako herritarren bizimodua kolokan jarri du.



Xuban Zubiria Elexpe

@xubanzubiria

“Turismoak itoko du Venezia, ez itsasoak” aldarrari honen pean argitaratu dute Josu Narbarte (1992, Irun) Anna Prulli (Treviso, 1989) eta Francesco Fasano (Venezia, 1984) ikasle eta ikerlariak *Barbaroen inbasioak XXI. mendean?* lan antropologikoa. Venezia oinarri hartuta, turismo eredu honek sor ditzakeen arazo sozialen inguruko hausnarketa bultzatu nahi izan dute. Lana EHUn eta Veneziaiko Ca’ Foscari unibertsitatean aurkeztu dute.

Egun, ekonomiaren sektore garrantzitsuenetakoa bihurtu da turismoa, batez ere Europa hegoaldeko lurraldeetan. Zerbitzuen nahiz atxikitako bigarren mailako jardueren inguruan benetako industria turistikoa sortu da. Aberastasuna eta enplegua sortzeko gero eta garrantzi handiagoarekin. Urtero atzerrira bidaia bat behintzat egiten duten pertsonen kopurua hazten doa. Fenomeno

global baten aitzinean gaude beraz. Egieleen ustez, turismo honek erreproduzitu egiten ditu sistema ekonomikoaren kontraesan eta gatazkak, izan ardatz ezberdinen artean (iparra-hegoa), izan kolektibo sozial ezberdinen artean.

Turismoa sarri baliabide ekonomiko huts gisa ikusten da eta administrazioak ahalik eta bisitari gehien erakartzeko helburu soil bezala erabiltzen du. Esan gabe doa horrek guztiak tentsioak eta kontrako erreakzioak ere sortzen dituela, esaterako Desokupatu 2016 mugimendua Donostian edo No Grandi Navi mobilizazioak Venezian. Halako mugimendu gero eta gehiago sortuko direla diote ikerlariak, turismoa beste gune eta egituretan eragin dezakeen fenomeno bezala ikusi beharrean, administrazio publikoetatik etekin pribatua lortzeko instrumentu modura erabiltzen baita hainbatetan. Eredu honek masa turis-

moaren mesedetan hirien ehun soziala degradatzen laguntzen duten neurriak hartzera behartzen ditu entitate publikoak.

Donostiako eragile askoren artean alarma gorria piztu dela ikusten ari gara. Hiriburutza kulturala eta hiriak historikoki duen turismo tradizioa ez badira ondo gestionatzen, Donostiako bizilagunen bizi ereduak kaltetu dezake. Turismo basatiak sor ditzakeen desoreka sozialen adibide da Bartzelona. Ada Colau alkateak turismo eredu birdefinitzeko moratoria dekretatu izanak, hiriburu katalanak bizi duen egoera larria islatzen du.

Neurrigabeko masa turismoaren isla garbia izatera iritsi da Venezia. Lanaren egileek turismoaren monolaborantza izendatu duten eredu ekonomiko anti-eredu bilakatu da jada, Bartzelona eta turismoaren arazoa sufritzen du-

» Masa turismoaren mesedetan, eredu honek hirien ehun soziala degradatzen laguntzen duten neurriak hartzera behartzen ditu entitate publikoak

» Despopulaziorako tresna ere bilakatu da turismoa, bertako bizi-baldintzak izugarri garestitu baitira. Azken urteetan ia 100.000 biztanle galdu ditu Venezia

» 2.400 hotel-egituretatik epe ertainean 50.000ra igarotzea aurreikusten da, egitura finantzario, administratibo eta akademiko andana desagerraraziz



Ezkerrean, No Grandi Navi mugimenduak utzitako argazkia: itsasontzi handiak Tronchetton ez porturatzea eskatzen dute herritarrek. Eskuineko irudian, ezker-eskuin, Josu Narbarte, Anna Prulli eta Francesco Fasano, 'Barbaroen inbasioak XXI. mendean?' lanaren egileak.



ten beste hiri batzuentzat. Herritarrak antolatzen hasi dira eta azken urteetan aipagarria da No Grandi Navi mobilizazio-dinamika: itsasontzi handiek Tronchettoko portuan (Venezian) lur ez hartzea eskatu dute herritarrek. No Grandi Navi mugimendua Udalaren aurka altxatu da eta salatu dute halako ontziak hiriaren erdigunetik pasatzen uztea hiriaren jasangarritasunaren aurkako erabaki zuzen eta interesatua dela. Francesco Fassanoren arabera, ontzi handi horien presentzia biztanleentzat arriskutsua eta probokazio hutsa izateaz gain, berauen joan-etorriak hiriaren oinarri diren paduretako hondoak higatzea eragiten du. Horrek dakar hiriarenean aurrean askoz ere ahulagoa izatea eta hain ezaguna den "acqua alta" fenomeno naturala gero eta larriagoa bihurtzea. Mobilizazioak arrakastuak izan dira, No Grandi Navi aldarria Europa osora zabaltzeraino.

Ikerlarien lanean masa turismoak eragindako hiru arazo nagusi identifikatzen dira: gainbehera demografikoa, belaunaldien arteko gerra eta gentrifikazioa.

Gainbehera demografikoa

Turismoak Veneziaiko beste sektore ekonomiko guztiak jan ditu. Are gehiago, Margherako portuari lotuta zeuden industria petrokimikoa, ongarriena eta ontziolena desagertzeaz daude. Horrek

guztiak bizimodu bakarra utzi die Veneziaiko herritarrei eta despopulaziorako tresna ere bilakatu da turismoa, bertako bizi-baldintzak izugarri garestitu baitira. Hala, kolpe demografiko gogorra jasan du itsasoko erresuma zenak: 1971. urtean Veneziaik 363.062 biztanle zituen eta azken urteetan ia 100.000 galdu ditu. Hirigune historikoan, asko dramatikoa izan da galera, biztanleriak oso azkar eta bortizki jo du gutxitzera.

Belaunaldien arteko gatazka

Uneotan hiriburuak duen beste erronketako bat, gertatzen ari den belaunaldien arteko gatazka gaitzeta da. Batetik jaiotzez veneziarrak diren helduak daude, bestetik bizitzen gelditu diren gazte apurrak eta Ca' Foscari unibertsitatean joaten diren ikasleak. Harrigarria badirudi ere, azken urteetan "betiko veneziarrek" eta turistek aliantza sinbiotiko sinergikoa osatu dute. Jende heldua periferian bizi da nagusiki eta turistak erdiguneko kale eta hoteletan pilatzen dira. Bi multzoek beraien beharrik asebetetzeko ez dute arazorik gaur egungo Venezia, eta hiriak bizi duen status quo-ra moldatu dira. Beste aldean, ordea, herriko gazte eta ikasleak ditugu: turismoaren interesetara bizi den hiriko ordutegiaren ondorioz, euren sozializazioa hiriko plazetan Spritz bat hartzea mugatu dela salatzen dute.

Gaueko hamaiketarik aurrera benetan zaila bihurtu da pub edo tabernaren bat zabalik aurkitzea. Gazteentzat Venezia hilik dago eta nahiago dute beste hirietara (Padua, Udine...) bizitzera joan, baldintza ekonomiko hobek eta aisialdirako eskaintza ugaria dutelako.

Gentrifikazioa

Industria turistikoa hazi baino ez da egiten ari. Egungo 2.400 hotel-egituretatik epe ertainean 50.000ra igarotzea aurreikusita dago, orain arte irauten zuten egitura finantzario, administratibo eta akademiko andana desagerraraziz. Egitura horien desagertze masiboa gertatu den zonaldeetan apenas geratzen da herritarrik. Hotelak denaren jabe egin dira eta egoerak hiriaren gentrifikazioa ekarri du: batetik daude turisten tsunami etengabea pairatzen duten zonalde turistikoak (San Marcos plaza eta Rialto zubiaren inguruak), eta bestetik, Veneziaiko biztanleen bizileku-ghetto diren auzoen alderik periferikoak (Santa Croce, Santa Marta, Cannaregio, Dorsoduro, Castello...).

Lanaren egileek ohartarazi dute prozesua bete-betean dagoela hedapen fasean eta aurre egin diezaiokeen tresna eraginkorrena herri mobilizazioa dela. Auzia presentzia publikoa hartzen ari da eta diskurtso gero eta landuagoa dabilite herri eragileek. Mobilizazioak bakarrik salba dezake Venezia. ■

“IRLANDAN POLITIKA HERRITARRENGANDIK URRUTI DAGOELA SENTITZEN DUTE GAZTEEK, ELITE BATZUEN KONTROLPEAN”

Grian Ni Dhaimhin Strabanen (Ipar Irlanda) jaiotako gaztea da. Belfasteko Queens unibertsitatean historia ikasten du. Ikasle mugimenduan, *Fossil Free* erregai fosilen ustiategien aurkako mugimenduan eta gaelikoaren aldeko hainbat kanpainatan parte hartzen du besteak beste. Sinn Feineko gazte erakunde *Sinn Fein Republican Youth* taldeko kide izan da, nahiz eta bere “formakuntza sozialista behar bezala aurrera eraman ezin izanagatik” taldea uztea erabaki zuen. Bere aita IRAko militantea izateagatik hamabi urtez izan zen espetxean. Ipar Irlandako gazteriaren egoeraz eta problematikaz, feminismoaz eta gazteen egoera prekarioa iraultzeko alternatibez mintzatu gara berarekin Dublinen.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Martin Mendizabal
@mendigarai

Zein da gazteen egoera Irlandan?

Nire perspektiba landa gunekoa da. Ipar Irlandan lan eta baliabide nahikorik ez dagoenez gazteek alde egin behar dute hirietara. Gazteen langabezi tasa oso altua da eta dauden lan eskasak oso prekarioak dira. Kasu batzuetan, ordea, gazteen kualifikazio altua ere arazoa izaten da. Gazteek politikarekiko oso sentrazio ezkorra daukate eta horrek apatia sorrazten die. Politika herritarrengandik urruti dagoela sentitzen dute, elite batzuen kontrolpean. Egun ez da politika herritarrik sustatzen. Gazteek ez dakite nola hasi antolatzen aldaketa bat aurrera eramateko.

Erljioa traba al da?

Bai, Irlanda herrialde oso katolikoa da. Union of Students of Ireland ikasle sindikatuak abortuaren aldeko kanpaina handia egin zuen eta herritarrengan eragin handia eduki zuen. Hala ere,

nahiz eta gazteen artean erlijioak garrantzi handirik ez duen, erlijioa posizio aurrerakoiak gelditzeko mekanismo bat da oraindik, freno antzeko bat.

Zeintzuk dira gazteriaren arazo nagusiak?

Alde batetik, unibertsitateko tasak ezin ordaindua. Ipar Irlandako unibertsitate publikoko matrikulak urtero 4.500 euro balio ditu. Ikasleak zorpetu egin behar dira gastuei aurre egiteko. Honez gain, Belfastera ikastera doazen gazte asko ez dira bertan etxebizitza ordaintzeko gai. Horregatik horietako batzuk beraien lagunen sofatan lo egitera behartuta daude. Beste alde batetik, azken urteetan osasun mentalekin zerikusia duten gaixotasunak asko igo dira. Beren buruz beste egiten dutenen tasa oso handia da. Ostiral Santuko akordioak sinatu ziren 1998tik gaur egun arte suizidatu diren pertsonen kopurua, Irlandako ga-

tazka armatuan bizitza galdu zutenena baino handiagoa da. Horrez gain, gazteen oinarrizko eskubide asko ez daude onartuak: etxebizitza eskubidea, gay eta lesbianen eskubideak...

Zer nolako indarra dauka mugimendu feministak Irlandan?

Irlanda oso herri tradizionala izanda “gure gorputzak gure eskubideak” diskurtsoa lantzen ari gara. Emakumea eta sukaldearen binomioarekin puskatu nahi dugu. Mugimendu errepublikarreko omenaldietan emakumeak dira kafeak eta teak zerbitzatzen dituztenak. Emakumeari ez zaio lidergorik ematen, ez baita beraren ahalduntzerik bilatzen. Mentalitate maskulinizatu eta matxista dago Ipar Irlandan. Futbol gaelikoan jotzen dut. Gure herrian neska eta mutilen taldeak daude. Gizonezkoen kasuan ez bezala, gure taldeak ez du inolako laguntza ekonomikorik jasotzen.

Ba al dago egoera iraultzeko alternatibarik?

Apirilaren 26an, Irlandako independentziaren mendeurrenean, milaka lagun bildu ziren Dublineko kaleetan. Poztu nintzen ospakizunetan mugimendu errepublikarretik at aldarrikapen sozial ugari ere ikusi nituelako. Herriaren boterea izango da aldaketa eragingo duen indarra. Ezer lortu nahi baldin bada indar hori gabe ezinezkoa izango da. Sinn Fein izango bada botere sozial hori kanalizatuko duen indar politikoa, horretan oinarrituta egon beharko den estrategia martxan jarri beharko du. Sinn Feinetik harago begiratu behar da eta prestutasuna eduki. Garrantzitsua da herri sektore horiekin guztiekin aliantzak egitea, beraiek baitira aldaketa eragin dezaketenak.

Zein da alderdi errepublikarraren independentzia plana?

Arazoa da Sinn Feinek ez duela independentzia plan bat, hau da, ez dago argi Irlandako 32 konderrien independentziarengatik borrokatzen den edo Ipar Irlandako probintziak Hegoaldeko lotuko zaizkien. Ipar Irlandan oraindik publikoak diren zerbitzuak (ura, oinarritzko hezkuntza, osasuna) ordaintzen hasiko gara? Zer esan nahi du Irlandaren batasunak eta nola egingo dugu? Egun ez dago hori lantzen hasteko planik. Ipar eta hegoaldearen arteko adostasuna behar da. Perspektiba ezin da izan komunitate unionista zapaltzera joatea; aitzitik, konbentzitu behar ditugu Irlandaren batasunak guztioi mesede egingo digula. Horretarako alderdi errepublikarrek Ipar eta Hego Irlandako exekutiboetan gehiengoa lortu beharko lukete. Proposamena egin behar zaie loialistei proiektu horretan parte har dezaten. Garrantzitsuena da buruan daukagun utopia paperera eramatea, ikerketa ekonomiko, politiko eta soziologiko sakon bat egin.

Hego Irlandan uraren pribatizazioaren aurka sortutako Right2Change mugimendua bide horretatik al doa?

Helburu horiek lortu nahi baditugu alderdietako politiketatik harago joan behar gara. Right2Change oso adibide ona da hori erakusten duelako. Hainbat alderdi eta sentsibilitatetako pertsonak batu dira uraren pribatizazioaren aurka protesta egiteko. Eskoziako mugimendu



*Grian Ni Dhaimhin
independentzia aldarrikapenaren mendeurren
oroitarriaren ondoan.*

“Mugimendu errepublikarrak ez dauka independentziarako bideoririk”

“1998tik Irlandan bere buruaz beste egin dutenen kopurua gatazka armatuan bizitza galdu zutenena baino altuagoa da”

independentista SNP Eskoziako alderdi independentista baina harago joan zen: emakume, sindikatu eta ikasle mugimenduaren bidez aktibatu egin ziren.

Nork egin beharko du jendea aktibatuzko lan hori?

Edonor izan daiteke. Erica Flemingek, apirilaren Dublinean egin zen Sinn Feinen kongresuan diskurtso antologikoa eman zuen. 30 urteko gazte horrek urtebetetik gora eman du bederatzi urteko alabarekin etxegabe, etxerik alokatzeko diru nahikorik ez duelako. Adibide eredugarria da Flemingek kasua, bere egoera pertsonaletik mugimendu bat sortzea lortu baitu. Gaur egun emakume hori etxebizitza eskubidearen aldeko ikur bihurtu izanak erakusten du aldaketarako abangoardiak ez duela zertan antolakunde edo alderdi politiko bat izan. ■

ATZOKO TEKNOLOGIA, GAURKO HONDAKINAK

Ezin da zalantzan jarri zaborraren kudeaketak eztabaida eragiten duela gure gizartean. Bada ordea, oharkabean pilatzen ari den zabor mota bat; ia ikusezina da eta gizakion buruen gainean dago, 30.000 bat metro gorago. Espazioko zaborra da, eta arazo larria bilakatzen ari da espazioko ikerlariarentzat.



Hegoi Belategi
@Mr RavenPlace

Zabor hitza ez da agian egokiena espazioan dauden materialak definitzeko, espazioan aurkitu daitekeena ez baita astronautek sortutako errefusa edo hondakin organikoa. Burdinazko eta altzairuzko puskak dira gehienak, satelite zaharretatik eta suzirietatik eroritako piezak.

Satelite bat gidaririk gabeko objektua da, espaziora autonomiaz joateko diseinatutakoa. Hainbat motatakoak dira: zientifikoak, komunikaziorakoak, espioitza sateliteak... Misiorenen arabera, orbita batean edo bestean egoteko diseinatuko dituzte. Gailu gehienak lur-reko orbita baxuan daude zintzilik, ho-

gei kilometrotik goraxeagoko altueran. Sateliteen misioek iraupen jakina dute; erregaiz betetzen dira, eta hura agortutakoan funtzionatzeaz urten diote. Orduan bihurtzen dira baliorik gabeko zabor.

50eko hamarkadaz geroztik, ehunka satelite eta suziri jaurti dituzte NASA, ESA (Europako Espazio Agentzia), FKA (Errusiako Espazio Agentzia Federala) eta beste hainbat agentziak. Gaur egun 9.000 bat satelite daude orbitan. Gehienek egin dute beren lana, eta espazioko zabor dira egun.

Agustin Sanchez Lavega EHuko fisika katedraduna eta Espazio Gelako koordinatzailea da. Dioenez, espaziora tresnak bidaltzen hasi zirenean ez zuten uste objektuen pilaketa inoiz arazo bihurtuko zenik. Baina hala gertatu da, eta arazoa geroz eta larriagoa da.

Orbitan dagoen ia edozein material atmosferan sartuko da noizbait, baina ibilbide horrek ehunka urte iraun dezake. Bitartean, gerta daiteke satelite batek beste baten bidea oztopatzea; orduan gertatzen dira talkak. Talkek berez ez dituzte leherketa handiak eragiten, baina bai barruan duten erregaiak. Satelite batek bere zeregina bukatutakoan, erregai arrastoak geratu ohi zaizkio eta normalean oso errekorrak dira.

Materialen arteko talkak geroz eta ohikoagoak dira. Horien ondorioz, zaborra milaka zatitxotan banatzen da: "Azken datuen arabera, hamar zentimetro inguruko 20.000 puska daude orbitan", dio Sanchez Lavegak, "txikiak dira, baina pentsa ezazue zelako kaltea eragin dezakeen horrelako batek segundoko 7,5 kilometroko -28.000 kilometro orduko- abiaduran doazen puska batek



beste bat jotzean. Hori dela eta, ISSko (Nazioarteko Espazio Estazioa) astronautak kontu handiz ibili behar dira zaborrarekin”.

ISS lurreko orbita baxuan dago, hondakin gehien biltzen dituen orbitan hain zuzen. Astronautek etengabe jarraitzen dute objektu guztien ibilbidea; hurbilegi pasa behar badute egoera oso arrisku-tutzat jotzen da, eta astronautek segituan ebakutzen dute ontzia. Arrisku horietarako irtenbide bila nazioarteko agentziek aspaldi jarri zuten martxan konponbide bat. Baina espazioa garbitzea sateliteak jaurtitzea baino askoz ere prozesu neketsuagoa da.

Burdinazko izarren bila

Espazioko zaborra garbitzeko plana sinplea da. Alde batetik, etorkizuneko sateliteak automatikoki suntsitu daite-

zen diseinatuko dira. Beren eginkizuna bukatzen duenean, ibilbidea aldatu eta atmosferara abiatuko dira, bertan desegiteko. Gezurra badirudi ere, azken urteotara arte ez dira hasi ingeniariak teknologia hori garatzen.

Dagoeneko espazioan dauden hondakinak berreskuratzeko planak, berriz, bi fase ditu: sailkatzea eta berreskuratzea. Kalterik jasan ez duten sateliteak sailkatzea ez da oso zaila, gehienak radar bidez kontrolatzen dituzte eta. Suzirien piezak eta bestelakoak ordea, banan-banan bilatu behar direla dio Sanchez Lavegak: “Tamaina txiki eta ertaineko puska aurkitzea oso prozesu motela izan daiteke. Satelite handiena ez bezala, zati txiki horien ibilbidea ez dago aurreikusita; hortaz, teleskopio batekin bilatu behar dira”.

Elecnor Deimos enpresa espainiarrak espazioko zabor txikia aurkitzeko diseinatutako hiru teleskopio egin berri ditu. Hala ere, era horretako teleskopio gutxi daude oraindik, eta zatiak gerroz eta ugariagoak diren heinean, astronomia zaleek egiten dituzten ekarpenak garrantzitsuak dira oraindik.

Hondakin handienei dagokienez, ESAk lokalizatu egin ditu eta hurrengo urteotan orbitatik kentzeko asmoa du. Emmet Fletcher ESAko ingeniari eta zabor espazial alorreko arduradunak dioenez, gutxi batzuk kenduta egoerak hobera egingo luke: “Austingo Unibertsitateko ikerketa baten arabera urtero bi edo hiru objektu handi kenduz gero, egoera kontrolpean mantendu ahalko genuke”.

Sateliteak arrantzatu daitezke

90eko hamarkada amaieran espazioko zabor kopurua gutxitu behar zela erabaki zuten nazioarteko espazio agentziek. Bakoitzak bere bidea egin zuen. Europako Espazio Agentzia duela hamabost urte hasi zen e-Deorbit garatzen: zaborra “arrantzatu” duen sistema.

“Arpoi ala sare baten bitartez, bi tona baino pisu handiagoa duten objektuak harrapatu nahi ditugu. Horregatik arrantzatzeraz goazela diogu”, dio Emmet Fletcherrek. Ingeniari ingelesaren ustez, zabor kopurua murriztu beharra dago eta etorkizuneko sateliteek luzeago iraun dezaten diseinatu behar dira.

Hala ere, analisi katastrofikoak alde batera uzten ditu: “Zabor puska txikiak oso abiadura handian doaz; balak bezalakoak dira, eta egia da gure sateliteek



ORBITA GUTIZIATUENETAN DAGO ZABOR “PILAKETA” HANDIENA

Lurreko orbita baxua eta geoestazionarioa –espazioan dagoen objektua Lurreko puntu beraren gainean dago beti– dira espazioko “zabortegirik” handienak. “Orbita ugari daude”, dio Agustín Sánchez Lavega EHUKo irakasleak, “baina sateliteak, motaren arabera, bi orbita horietan kokatzen ditugu gehienetan. Espioitza sateliteak, esaterako, lurretik ahalik eta hurbilen egoten dira, argazkiak onak izan daitezten. Hainbat satelite meteorologikok, bestalde, orbita geoestazionarioan egon behar dute, hau da, posizio egonkorrean. Horretarako 35.000 metroko altueran egon behar dute gutxi gorabehera”.

- » 10 zentimetro inguruko 20.000 puska daude orbitan; txikiak dira, baina kalte handia egin dezake horrelako batek segundoko 7,5 kilometroko abiadura zerbait jotzean

kalteak izan ohi dituztela. Baina ez dira *Wall-e* filmeko zabor-uhin arriskutsu horiek bezalakoak. Espazioaren zabale-
ra izugarria da. Zaborra pilatzea ekidin behar dugu, besterik ez”.



Europako Espazio Agentziako hainbat ikerlarik diseinatu duten .eDeorbit espazioko zabor biltzaileak arpoi edo sare baten bidez atzemango ditu espazioko "hondakinak"; zehazki, bi tona baino gehiagoko pisua duten objektuak. Aurten jakingo da proiektua erabat garatzeko finantzazio nahikoa izango duen edo ez.

EUROPAKO ESPAZIO AGENTZIA

Satelite jasangarriagoak

"Garbiketa ontzia" ez ezik, e.Deorbit-ek eredu aldaketa baten hasiera izan nahi du. Hydrazinaz eginiko erregaia erabiliko du. Hydrazina ez da oso errekorra, beraz, leherketek eragin ditzaketen kalteak ez lirerateke hain larriak izango. Gainera, beste erregaiekin alderatuz, ez da hain kutsakorra. Satelite iraunkorra izango da e.Deorbit, hainbatetan erabiltzeko asmoa baitute. Zaborra atmosferara eraman eta erretakoan, e.Deorbit lurreratu eta berreskapatu egiteko dute. Hala, kostu ekonomikoak nabarmen murriztuko dira.

Lehenik eta behin, ESAk deuseztatuko duen pieza aukeratu du eta radar bidez jarraitu. Orduan, e.Deorbit zaborra dagoen lekura bidaliko dute; leku egokian dagoenean, arpoi batez zeharkatu-

ko dute kendu beharreko pieza, edota sare batez inguratu. Horixe da partetik konplexuena, ikerlariek ez baitakite biraka doazen materialak puskatuko diren ala ez. Azkenik, e.Deorbitek norabidea aldatu eta atmosferara eramango du harrapatutako zaborra.

Finantzazioaren zain

Horixe da plana; hala ere, arrakasta izatekotan sistema gehiago garatu nahiko luke ESAk: "Etorkizunari begira, e.Deorbitek orbitan dauden sateliteak konpondu eta eguneratzea nahiko genuke. Gai-luen iraupena luzatzen badugu, ez dugu izango zertan hainbeste satelite jaurti, eta zabor gutxiago sortuko dugu".

Proiektua nahiko garatuta dute ingeniariak, baina oraindik ez dute erabil-

tzen hasteko datarik. ESAren egitura deszentralizatu da arazoa: 22 estatuk osatzen dute erakundea, eta 22etako agentziek ados egon behar dute erabakiak hartzeko eta, batez ere, baliabide ekonomikoak baimentzeko. Emmet Fletcherrek dioenez, "estatuek dirurik ez badute ematen guk jai dugu. ESAk biltzar ministerialak egiten ditu lau urtero, eta talde bakoitzak bere proiektuaren eboluzioa eta aurrekontua aurkeztu behar du, finantzaketa berritu dadin".

Aurten biltzar ministeriala egiteko urtea da, eta e.Deorbit sisteman lan egiten duten ingeniariak aurrekontua aurkeztu dute jada. Erantzunaren zain daude bitartean, duela 50 urte modernizazioaren ikur zenak zabor bihurtzen jarraituko du gure buruen gainean. ■

Perretxiko zaindariak

Orain prezio berezia! 15€

Perretxiko bila joatea atsegin duzu?

Jolas honekin perretxiku biltzaile arduratsua eta bikaina bihurtuko zara

Eskaerak: ☎ 943 37 15 45 · denda@argia.eus · www.argia.eus/denda **ARGIA**

ARGIA 2017ko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz janzteko.

***Ez beldurrik izan
datorrenari...
eskatu orain 2017ko
ARGIAren egutegia
eta irailean
eskuratuko duzu.***

Buruketak

Galdetzea libre

Atzokoak gaur

Santuak

Euskal izendegia

Eguzkia, ilargia eta mareak

Egutegia

9€

50€

Egurrezko
taula
egutegia
opari



☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus

Xübükota haurtzaindegia

EUSKARAZ ARI DIRA ZUBEROAKO TXIKIENAK

Haurtzaindegi elebidunak badira Zuberoan. Euskara hutsean arituko zena nahi zuten ordea guraso batzuek. 2016ko urtarrilean lortu zuten abian jartzea Maulen. Hamaika haur dira eta bi haurtzain, Luxi Agergarai eta Marion Cazenave. ARGIA Luxi Agergararekin mintzatu da. Joana Etxarten eta Sylvie Genezen esanak Kanaldude telebistak egindako bideo lanetik hartuak dira.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: XÜBÜKOTA HAURTZAINDEGIA

Joana Etxart haurtzaindegiaren abiarazleetakoa bat da. 2014an sentitu zuten halako gune baten beharra. Horrela kontatu du Etxartek: “Guraso bezala, frustrazio batetik dator beharra. Nire semeak haurtzaindegia utzi zuen ikastolan sartzeko. Haurtzaindegiarekin ukan nuen esperientzia alde batetik oso ona izan zen, baina euskararekiko gogorra. Mauleko haurtzaindegian egon zen, eta paperean elebiduna baldin bada, ofizialki edo teoriarik, egiazko errealitatean ez da elebiduna. Euskararen mintzarazteko eta erabiltzeko ez dago deus ere pentsaturik, aitzin ikusirik. Erran nahi du euskaraz ari den langilea behar bada amini bat euskaraz ariko dela, baina nagusiak frantsesetik solastatzen dira. Ene haurrak enekin ikasten zuten euskara eta desikasten zuten haurtzaindegian. Niretzako bizitzeko bortitza zen, gogorra. Ene semearekin euskararen inguruan nuen harremana gogorra zen. Ekartzen zizkizun haurtzaindegitik “*Je veux encore*” eta horrelako hitzak eta nik galdetzen nion ‘hori euskaraz!’. Frustrazio bat banuen, eta ikusi nuen nire inguruan ere nire belaunaldiko aita eta ama anitzek bazuela sufrimendua maila horretan”. Joana Arantzet gurasoarekin

elkartu zen Etxart eta ez zuten euskara hutsean aritzen zen haurtzainik aurkitu. Egoera beltza iruditu zitzaion Etxarti. Hala zirela jakin zuten Angelun Haurtzain Etxe bat (MAM Maison D’assistantes Maternelles) abiatzekoak zirela. Langileak euskaldunak ziren eta euskaraz arituko ziren.

2017tik aurrera zortzi haur egun osoz

2014an nondik jo ari ziren pentsatzen Etxart eta Arantzet eta 2016ko urtarrilean dagoeneko Xübükota abian zen. Mauleko erdigunean 97 metro koadroko eraikina alokatu eta atontzea ez da erraz-erraza izan. Bi gurasoek Ttipi ttipa elkarte sortu zuten horretarako eta dirua biltzeko kanpaina abiatu zuten interneten. 3.000 euro lortu nahi zituzten eta kopurua gainditzea lortu zuten. Erakunde publikoan erantzunarekin ez da oso pozik Etxart, Kanaldudeko bideoan egindako adierazpenetan. Kontseilu orokorrean atea pare bat aldiz jo zutela dio eta ideia ona zela esan bai, baina ez da seguru interesatu direnik, “edo ikusten duten zer behar dagoen. Sentitu dut anitz futitzen dela, orobat esaten dizut. Ez badira euskaraz ari bi urtetan, hizkuntza ikasten den adin horretan...

Nik hori sentitzen dut”. Urte hastapen hartan Mauleko Herriko Etxeak eta Xiberoako Herri Elkargoak ere ez zuten finantzatu. Hilabete batzuk geroago Herri Elkargoak 4.000 euro eman ditu. Udalbiltzak *Euskal Pirinioan lan eta bizi* egitasmoan sartu zuen euskarazko haurtzaindegia eta 4.000 euro eman zituen Xübükota abiarazteko. Euskararen Erakunde Publikoak liburuak eta jokoak eskaini dizkie.

Luxi Agergarai eta Marion Cazenave, bi haurtzain izanik, bakoitzak hiru ume zain ditzake egun osoz, bi hilabetetik hasi eta hiru urte bitartekoak. Horrela, sei haur dituzte egun guziz eta bost tarteka doaz. Urte honen amaieran bakoitzak laugarren bat egun osoz izateko baimena lortuko dute. Beraz, 2017an zortzi haurrek izango dute aukera egun osoz Xübükotan egoteko. Eskaera guztiei erantzun ezinik dira bi haurtzainak. Pozik dira Agergarai eta Cazenave, haien nahia betetzen ari delako, Zuberoan ari dira euskaraz lanean, eta haurrek euskara entzuteko aukera dute Mauleko erdigunean. Izan ere, guraso gehienetan batek edo besteak daki euskaraz, baina ez biek. Haien helburu nagusia umeek euskara entzutea da. Beste ezaugarri



Maule erdigunean dago Xübükota haurtzaindegia. 2014an bi guraso hasi ziren euskara hutsezko haurtzaindegiaren beharraz hitz egiten eta 2016ko urtarilean abian zen.

batzuk ere balioesten dituzte, hala nola, toki txikia izatea eta haur kopuru txikia. Badira beste bi haurtzaindegi molde, bata etxe pribatuan lau haur edo gutxiago zaintzen direla, eta bestea, haurtzaindegi klasikoa, 15-20-25 haur bil ditzakeena.

Murgiltze eredia nahiago du Sylvie Genezek

Sylvie Geneze Anttonen ama da. Hilabete batzuk baino ez ditu txikiak. Genezek Kanalduderi azaldu dio zergatik nahi zuten berak eta bere bikotekideak haurra Xübükota haurtzaindegian sartu: “Bi arrazoiengatik hautatu dugu Antton haurtzaindegi honetan ezartzea. Alde batetik, inguru euskalduna izatea garrantzitsua da enetako, ez naiz euskaraz mintzatzen edo biziki gaizki. Euskal

Herrian bizi naiz, beraz inportantea da Anttonen kultura eta hizkuntza euskarari lotuak izan daitezen. Ene haurren haurtzaina euskalduna zen ere, hautu hori egin nuen. Joan den urtarilean haurtzain izatea uzten zuela jakitearekin, beste haurtzain euskaldun bat bilatu dut. Luxi atzeman dugu eta bere programa biziki gustatu zaigu. Euskara biziki inportantea da, baina horrez gain bere proiektua biziki gustatu zaigu. Lekua ere gustukoa genuen. Ez genuen Antton ezarriko haurtzaindegi euskaldun batean ez balitz lekua egokia izan.

Euskara biziki inportantea da, baina handituko den ingurua ere bai. Irizpide horietan oinarritzen da gure hautua. Murgilbidea lehenesten dut, ez bainaiz gai sentitzen euskara transmititzeko ene haurrari. Gaizki mintzo naiz, hutsak

» **JOANA ETXART:**
“Mauleko haurtzaindegia paperean elebiduna baldin bada, egiazko errealitatean ez da elebiduna. Euskararen mintzarazteko eta erabiltzeko ez dago deus ere pentsaturik”

» **SYLVE GENEZE:**
“Murgilbidea lehenesten dut, ez bainaiz gai sentitzen euskara transmititzeko ene haurrari”

egiten ditut. Horrela, posible dut ene ama hizkuntzan, hots frantsesez, mintzatzea ene haurrekin. Landetakoa naiz, nire familian, ene lagunen artean, gutxi dira euskaldunak, aldiz ene lagunaren aldetik, Muskildin, gehienak euskaldunak dira. Naturalki euskaraz ari dira, beraz Antton errazki mintzatuko da amatxi, izeba edo kusiekin, eta ondoko urratsa ikastola izanen da. Inguru partekatuan handituko da. Gainera, ene alabaren lagunak frantsesez ari dira, Anttonek giro horretan ere moldatu beharko du, denek ezagutzen duten hizkuntza baita, euskaldunek ere bai. Hilabete bat bada haurtzaindegi honetan garela eta biziki kontent gara. Murgiltzeak ez du eragin handirik, ez baita oraino mintzatzeko, baina pozik gara taldeaz, lekuaz, proiektuaz, eta euskal inguruaz”. ■

BABESLEA: **IVAP**

 IVAP HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA	 Enplegu Publikoa Lan-erakundearen fongaketa Lan-erakunde (Eusko Legebiltzari) Beste administrazioetako lan-erakundeak Haurtzaindegia Osoaketa: 2014-15eko Enplegu Publikoko osoaketa Erizaintzaren XXV. Prozesua Enplegu Publikoaren Erakundea, Eusko Legebiltzaria	 Prestakuntza Administrazio erakunde Toki Administrazioak Foru administrazioak Berriaketa hizkuntza prestakuntza ERETIU Prestakuntza jardueren homologazio prozedura	 Euskara Euskararen Erakundeak Hizkuntza erakundeak Berriaketa hizkuntza prestakuntza Argitalpenak Euskaraz lan egiteko baliabideak GDI - Hizkuntza Zerbitzu Ofiziala	 
				

Zuhaitzen adorea



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibartztea.eus

Zuhaitzen balorea etengabe berritu eta gogora ekarri behar izateko odola behar da! Halakoxeak gara. Kopeta galanta eta gibela zabal askoa izango ditugu berriz ere... Azalaren lodiera ez aipatzeagatik.

Azala ere ihartu zaio, ia erabat, zuhaitz erraldoi bati. Amorratio politarekin eman dit berria lagun batek: tragedia Vaucluseko departamentuko Monteux herrian gertatu da. Frantziako platano handienetakoa bat hil da. Platano arrunta zen, *Platanus x hispanica*, eta aurten-go otsaileko neurketaren arabera 8,23 metroko gerria zuen, ohikoa den eran, lurretik 1,3 metrora neurtuta.

Platano arrunta handi egiten den zuhaitz horietakoa da, baldin eta ba-keka ematen bazaio... Gehienak epaitu, lepatu, mugarrotu eta moztu egiten baititugu. Ustez bi platanoren hibridazioaren edo nahasketaren ondorio da egun hain hedatua den platanoa. Europa eta Asia aldeko *Platanus orientalis* eta Ameriketako *Platanus occidentalis*, Espainian nahastu ziren XVII. mendean, elkar topatu orduko... Hortik *Platanus x hispanica* izena. Tarteko "x" horrek



Antraknosiak jotako platano hostoak.

Platanus generoaren barruko bi espeziaren arteko nahasketa dela adierazten du eta *hispanica* hitzak, ba esan beharrik ez dago. Harrezkero mundu osoko hiriguneetan ugaria da platano arrunta. Ingeles berekoiek ez dute haren hispaniartasuna onartu nahi, eta Londresen bertan nahastu zela galdatzeko *Platanus x acerifolia* deitzen dute. Bejondeiela!

Monteuxen hil den amona zaharrera itzuliz, erabat hil gabe omen da. Animaliotaz ez dugu horrela hitz egiten, baina landareez honela hitz egin daiteke, lasai asko. Landareek bizitzeko hazi egin behar dute, nahi eta nahi ez. Eta platano honek kimu eta hosto berriak emateko kemenik ez. Gaitz hiltzaileak harrapa-

tu omen zuen eta hura mendean hartu ezinik, ezin buelta emanik azkenetan da, amona gajoa. Agidanean, "platanoaren txankro gorria" deituriko gaitzak jo zuen, *Ceratocystis platani*. Gaitz horrek ez du bueltarik, harrapatzen duen platanoa sei-zortzi urteren bueltan akabatzen du. Milaka eta milaka hil ditu Frantzia. 2009an Euskal Herrian aurkitu zen eta honezkero heda eta heda ariko da. Ez dut nik berarekin topo egin. Baina beldurra ematen du. Antraknosia dela-eta (*Apiognomonium veneta*), makal baitaude gure platanoak; aurten sekula baino okerrago. Txankroak, lehenaz gain, erraz akabatuko lituzkeela iruditzen zait. ■

27zapata

Astoak aspaldi jan zun kontzientzia, berdia zalako

Imanol Epelderen bloga www.argia.eus/blogak/imanol-epelde/



Txirindularia bokazioz, korrikalaria afizioz, irakaslea ofizioz. Literatura, hezkuntza eta osasuna jakingai.



ETXALDE-ELIKAHERRIA

JANTOKI JASANGARRIAK

Elikadura ere badelako hezkuntza



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Iserre departamendura (Rhône-Alpeak eskualdea, Frantzia) bidaiara egin zuten, Gure Platera Gure Aukera plataformak antolatuta, Etxaldeko hainbat baserri-tar, Jata Ondo eta Urkiola Landa Garapenerako Elkartetako ordezkariak, EHIGE Euskal Herriko Gurasoen Elkarteko kideak, VSF Herrien Bidezko Elikadura GKEko partaideak edota LAB sindikatuko kideak.

Eskola jantoki eredu berrien bila egin zuten bisita. *Etxalde* aldizkarian kontatu dituzte bisitako esperientziak.

Eskolan ere, bertatik eta bertarako

11 eta 15 urte bitarteko eskoletan 20.000 menu baino gehiago ematen dituzte egunero Iserren. Otordu horietan erabiltzen duten elikagaietatik %25 bertako produktua izatea lortu dute jada, eta %16 ekologikoa. Tokiko administrazioak hartutako jarrera gako izan da horretarako: merkaturatze bide laburren aldeko hautua egin dute egitasmo anitzak martxan jarri.

58 eskoletako jantokietako otorduak prestatzeko zazpi sukalde zentral kudeatzen ditu departamenduak. Bestalde, zenbait eskolek beren sukaldea dute, baina denek ere bide beretik egiten dute

lan: inguruko hiru ekoizle talderi erosten dizkiete produktuak sukaldeok.

Apustu zabalago baten parte

Eskola jantokiena ez da, ordea, neurri isolatu bat. Nekazaritza Ganberak tokiko ekoizleak elkartzea lortu du bultzatu dituen politiken bidez. Esaterako, produktu ekologikoak eskaintzen dituzten 50 ekoizle kooperatiba berean biltzea lortu dute (Magenz bio). Bere produktuen heren bat jantokiei saltzen die kooperatibak. Bestalde, hiltegi publiko bat ere martxan dute departamendu galiarrean, baita tokiko ekoizleen barazkiak moztu eta ontziratzeko dituen Legumerie AB Epluche izeneko sozietate mugatua ere.

Iserreko bisitan parte hartu dutenek garbi azaldu dute hurbileko kanal in-dartzea alde askoren elkarlanari esker eman dela: eskualdeko gobernuko alor ezberdinek (hezkuntza, nekazaritza eta osasun publikoa), udaletxeek, ekoizleek eta kontsumitzaileek bat eginik.

Kanpoko bizipenak eredu hartuta, gurean ere ari dira asko lanean horrelako esperientziak martxan jartzeko. Eskola jantokietan bertakoa, era jasangarrian ekoiztea eta osasuntsua eskainiz ere ikasleak hezitzen ariko ginatekeelako. ■



ALTZAN PARRU

Irribarrearen baratzea

Marraskilariak:

Asisko, Unai Iturriaga,
"mattin" Martiarena, Ainara Azpiazu,
Antton Olariaga, Zaldieroa,
Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €



BIZI BARATZEA

**Gure kultura
iraultzen ari den liburua**

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea
@bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuen eskaerak:

☎ 943 371 545
www.argia.eus/denda

AURKEZPEN HITZALDIAK

Uztailak 22: Oñati.

Lurgorri dendaren inaugurazioan
(Goribar auzoa, 15), 17:30ean.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545

MENDATAKO NOSTRADAMUS



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Mendata (Bizkaia), 1819. Eulalio Intxausti Gomeztegi jaio zen -hainbat iturrik, hala nola Joxemiel Barandiaranek eta Jose Luis Ortigosak diote Hilario zuela izena-. Gaztetan baserriko lanetan aritu zen eta ez zuen sekula gaztelania ikasi; euskara hutsez moldatu izan zen beti. Azken Gerra Karlistan, iragarpenak ziurtasun handiz esaten hasi omen zen eta, berehala, profeta edo igarle esaten hasi zitzaizkion ingurukoak.

Ez dakigu zehazki nondik zetorkion dohaina. Behin Kortezubiko Salbide baserrira joan omen zen arrebari bisita egitera eta, bueltan, Mendatara bidean, emakume batekin egin omen zuen topo. Arratzuko Santo Tomas elizara iritsi zirenean, emakumea iragarpenak egiten hasi omen zitzaion. Beste bertsio batekin dio behin gizonezko misteriozko batekin egin zuela topo eta handik aurrera etorkizuneko irudipenak etortzen hasi zitzaizkiola.

Kontua da arrakasta handia lortu zuela Intxaustik eta goizero baserrira bisitari andana iristen zitzaiola etorkizunari buruzko erantzunen bila.

“Bezero” partikularrak hartzeaz gain, XX. menderako iragarpen orokor ugari egin zuen. Gurdiak tximista bezain bizi ibiliko ziren; Bilbo aglomerazioak jango zuen eta jendeak elkarri enbarazu egingo zion; erlijio katolikoa gainbehera etorri-



Arratzu, Santo Tomas elizaren ataritik. Joxemiel Barandiaranek jaso zuenez, Mendatako profetak behin emakume batekin egin omen zuen topo eta, eliza honetara iristean, emakumeak gerora ospetsu egingo zuten iragarpenak esan omen zizkion.

BILBOKO ELIZBARRUTIA

ko zen, apaizen beraien erruz; kale-argiek bazter guztiak argituko zituzten, ipurtargiak bailiran; zeruan txori handi modukoak azalduko ziren, gizakiek gidatuta; eta txori horiek, prusiarrek gidatuta, Gernika erreko zuten oso-osorik...

1937ko Gernikako bonbardaketaren iragarpena ikusten du askok hor, baina, Intxaustik ikusten omen zuena sekula idatziz jaso ez zuenez, ez dakigu azalpenak zehaztasun horrekin eman zituen ala bere hitzak gerora moldatuak izan ziren gertatutakoarekin bat egiteko.

Munduaren akabera gertu ikusten zuten eta horren seinale izango omen

zen bidegurutzeak nonahi eta tabernak ia ate guztietan egongo zirela. Aita Barandiaranek dio tabernen aipamena ez zela ezohikoa eta, esaterako, Ataunen eta Zeanurin ere zurruta eta apokalipsia lotu izan zituztela.

Mendatako igarlek ez zuen sekula proselitismorik egin; ez zen baserriatik irten jarraitzaile bila. Bere zerbitzuen-gatik ere ez zuen ofizialki kobratzen. Hori bai, bisitariak oiloa edo barazkiak besapean zituztela etortzen omen zitzaizkion. Beharbada, eskatu gabe ere ordainsari bikaina jasoko zuela igarriko zuen. ■



OKLAHOMA HISTORICAL SOCIETY

Erosoago (eta gehiago) erosteko orga

1936an Sylvan N. Goldman Standard eta Piggly-Wiggly janari-denda kateen jabea zen Oklahoman (AEB). Bezeroak kutxetara paperezko poltsak erdi hutsik iristen zirela konturatu zen, poltsak erraz puskatzen zirelako eta bezeroei ez zietelako dendan lasai ibiltzen uzten. Aulki tolesgarri bati gupil batzuk eta bi saski erantsi zizkion, bata bestearen

gainean, eta, hala, erosketetarako orga asmatu zuen (argazkian). Asmakizunak arrakasta handia izan zuenez, Godmanek elikagaien sektorea utzi zuen eta orga fabrika bat sortu zuen 1947an. Enpresa berria, besteak beste, aireportuetan maletak garraiatzeko erabili ohi ditugun orgak merkaturatzen lehena izan zen. ■



Santurtzi ARGIAren arkupe



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Erretiroa hartu du Arkupe kiosko-jabe zaharrak eta testigua pasa dio Joxi gazteari. Ilusioz beterik hartu du lan berria. Santurtziko Mamariga auzoa, 2010eko uztaila. Sei urte dira Joxi Martin prentsa eta liburu saltzaile hasi zela, eta sei urte dira baita ere bere denda ARGIA saltzeko aukera egin zuela. Zer-gatik ARGIA? galdetu diogu.

Auzo euskalduna da Mamariga, euskaltzalea, eta astekaria inguru horretan modu naturalean sartzen dela dio santurtziarrek. Bera ofizio horretan hasi aurretik da harpidedun, gainera, eta lehendik ezagutzen du proiektua. ARGIAren bezero bezala dio atsegina duela besteren artean berak moduan pentsatzen ez dutenen elkarrizketak eta iritziak irakurtzea, eta maite duela kazetaritza independentea; ARGIAk ondo moldatzen dituela eguneroko albiste azkarra eta hausnarketarako espazio lasaia. Saltzailearen begietatik ikusten du beste hizkuntza batzuetan egiten diren antzeko produktuekin alderatu-

ta emaitza oso duinak ematen ari dela ARGIA gure hizkuntza txiki honetan.

Arkupe kioskoan lortu du Joxik ia asteroko irakurlea duen bezeroren bat eta auzoko liburutegiaren zazpi eguneko behingo fideltasuna.

Sare sozialetan saltsan ibili naiz ni kuriositate puntuarekin teknologia berrien (des)abantailak aprobetxatuz zer edo zer aurkitu nahirik. Dendariak berak aurretik aipatu dit kioskoa hartu zuenetik euskarazko prentsa zabaltzea izan dela bere helburuetako bat. Baina kiosko euskaltzaleaz gain topatu dut gai sozialetan garrantzia ematen duen Arkupe bat, baloratzen duena irakurketa kritikoa eta mimoz aukeratzen duena saltokirako produktua. Baditu desobedientzia zibilaz irakurgaiak, historiaz, ingurumenaz, feminismoaz... Badu, esaterako, *Pikara Magazine* aldizkari feminista.

Topatu dut ARGIAren baloreekin bat egiten duen Arkupe bat, eta poza ematen du. Tarteka bakarrik aurkitzen dira horrelako altxorrik. ■

“Mila esker ARGIA eta segi Euskal Herria argitzen”

Eñaut Beloki, ARGIAkoa



Hurrengo pausoak: finantza etikoak eta energia jasangarria

OlatuKoop, Koop57 eta GoiEner proiektuak gertutik ezagutzeko parada izan dugu ARGIAko langileok. Aukerak aztertzen jarraitzen dugu, ea ARGIAk eguneroko jardunerako behar duen hornitzaile sarea nola osatzen dugun gure balioak praktikan jarriz gero eta esparru gehiagotan. Uztaila langileon batzarrean erabakiak hartu eta espero dugu epe motzean horri buruzko albisterik eman gogor dugula orri honetan.

Oharra: topaketa jendetsuagoa izan zen, argazkian, bazkaritara geratu ziren alprojak soilik ageri dira.

ARGIAk kanala ireki du Telegramen

Telegram mugikorretarako sortutako aplikazioa da, Whatsapp bezala, baina ezberdintasun batzuekin: kanal publikoak sortzeko aukera, irudiak sor daitezke emotikonoen ordean, eta abar.

ARGIAren kanala helbide honetan aurki dezakezu: [telegram.me/ARGIAeus](https://t.me/ARGIAeus) edo bestela, bilatu “argiaeus” Telegram aplikazioan.

Eguneko hiruzpalau albiste garrantzitsuenak

Gainontzeko sare sozialekin egin dugun bezala, esperimentaziorako bide bat ireki nahi dugu. Hasieran eguneko 3-4 albisterik garrantzitsuenak eta azken orduko berriak eta argazkiak jasoko dituzu.



Yunet López repentista kubatarra, atzean Dana Sofua Limón huastecarra duela.

ESKOLEK ITZULI DIETE EMAKUMEEI TRADIZIOAK ISILDUTAKO AHOTSA

Uztailaren 11tik 16ra inprobisatzaileen Kulturarteko Topaketak egin dira bigarren ez Euskal Herrian, lehen aldi hartatik 13 urtera. Mintzolak antolatu ditu, Donostia2016 Kultur Hiriburutzaren babesean. Transmisioa, hizkuntza gutxituak eta genero ikuspegia ardatz hartuta, goizean jardunaldi akademikoak egin dira eta arratsaldean emanaldiak. Herri bakoitza mundu bat izanik ere, emakumeak urratzen ari diren bidea bera dela ondorioztatu dezakegu Kuba, Huasteca, Gales, Mallorca eta bertako inprobisatzaileen bizipenak entzunda.



Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Yunet Lópezek sehaskatik jaso zituen laute instrumentua eta dezima. Bere sehaska Kubako etxe oso berezian tokatu: birraitona zuen Rigoberto Rizo Maldonado repentista handia. 1940ko hamarkadan edo “repentismoaren urrezko aroan” nagusi ziren inprobisatzaileak etxean ezagutu zituen. Lópezek, uztailaren 12an emandako hitzaldian, umore handiz kontatu zuen etxekoek bere dohaina nola deskubritu zuten: “Inork ez zekien nik inprobisatu nezakeenik, eta oso berandu jakin zuten. Zergatik? Neskatoa nintzelako. Gure etxeko arretoa guztia nire lehengusarengan jarria zegoen: mutikoak 10 urte bete zituenerako egin zioten bere dezima, ikasi zezan...”. Bere ikastetxean lehen saio bat egin zuten repentismo tailerrerako ikasleak erakartzeko, baina berak ez joatea erabaki zuen, “nahiago izan nuen film bat ikusi”. Gelara itzuli zenean, ordea, erraz asko osatu zuen dezima: “Niri inork ez zidan erakutsi behar neurririk, ezta zerk zerekin errimatu behar zuen ere. Etxetik, entzunaren entzunez, barneratuta nuen”.

Repentismo tailerrean Alexis Díaz Pimienta izan zuen irakasle, Kubako inprobisazioaren ikas metodoaren sortzaile eta repentista handia. Jarraian, berak ere repentista tailerrean irakasteari ekin zion: “Hazten joan ahal, lehengusu hura musikari bihurtu da eta inprobisatzaile ni. Birraitonarekin behin bakarrik kantatu nuen: repentismo tailerreko ikasturte bukaerako nire oparia izan zen ikasle bakoitzarekin gure etxean dezima bat kantatzea, eta bukaeran birraitonak esan zuen berak ere kantatuko zuela. Berak egin zidan niri oparirik handiena”.

Lehen tradizioetik gaurko tailerra

Lópezek esperientziak ongi islatu dezake munduko txoko bakoitzeko emakumeek jendaurreko inprobisazioan egiten diharduten bidea: etxean belaunaldiz belaunaldi transmititu den tradizio maskulinoan zirrikitu bat zabalitzea, tailerrek edo eskolak sortzen dituzten testuinguru parekideagoak baliatuta. Halaxe kontatuko zuen Arantzazu Loidik uztailaren 12ko hitzaldian, Al-

meneko bertso eskolaz, alegia, lehen bertso eskolen esperientziaz ari zirela: “Gure irakasleek bat gehiago izan nendin zaindu zuten. Taldearen babesa ere niretzat oso garrantzitsua izan zen, kantu-lagunak lehendik nituen lagun min. Txapelketara joaten hasi ginenean, han bai, arduratu ziren ni neska nintzela oroitarazten”. Loidik eta Jon Sarasuak bertso eskola haietatik irakasleen pasioa azpimarratu zuten, “eurei hainbeste gustatzen zitzaiena guri erakutsi nahi ziguten. Teknikaz ezagutza handirik izan gabe”.

Antzeko iruditu dakiguke Rebecca Limón, Dana Sofua Limón eta Diana Lauraren ikasketen prozesua: Mexiko DFkoak izanik, egun batean huapango tailerrerako pausoak eman zituzten. “Huapangoa musika indigena eta flamenkoaren arteko nahasketa da” azaldu zuten, hauek ere, uztailaren 12an. Hitz eta musika finkoak ditu, baina batzuetan *son huasteco* deritzaion bat-bateko estrofak kantatzen dituzte. “Huapangoa belaunaldiz belaunaldi transmititzen da, baina gu hirikoak gara eta gure gu-



Goiko eta erdiko argazkietan Tabakaleran egindako saioaren irudiak. Beheko argazkian uztailaren 13ko mahai-ingurua: Ainhoa Agirreazaldegia, Karen Owen, Maria Isabel Servera, Rebeca Limón, Yunet López, Maialen Lujanbio eta Miren Amuriza.

E. EIZAGIRRE

rasoek ez zuten musika hau ezagutzen. Kasualitatez topo egin genuen gure irakaslearekin. Eskolatu gabea da, baina oso jakintsua, bizitzaz asko dakielako. Eta gure kulturarekiko maitasuna helarazi digu. Entsegu bakoitzean kontatzen zigun bere esperientziaren bat, esaterako, bere garaian oinez bide luzea egin behar izaten zuela emanaldietara joateko eta horregatik saiatzen zela joandako lekuan ahalik eta gehien ikasten. Ez digu teknikaririk irakatsi, 'jarri hatza hemen, jarri hatza han' soilik esaten zigun, eta guk jo, soinu ona atera arte".

Tailerrek inprobisazioaren biziraupe-nerako gako direla argi dute: "Gazte askok huapangoa jotzen dugu, baina oso arraroa da trobatzen, inprobisatzen ikustea. Inprobisadoreak zaharrak dira eta hiltzen ari dira. Horretaz jabetuta, tailerrek ireki dituzte, eta guk ere hor ikasi dugu. Baina inprobisadore askok nahia go du ez besteei irakastea, 'niri ikastea hainbeste kosta bazait zuri ere kostako zaizu!' pentsatzen dute". Tailerrek zabaldu dietela emakumeei oholtzarako atea kontatu zuten: "Lehen gizonena zen huapangoa, emakumeek dantza egiten zuten oholtzapean. Tailerrek hori aldatu dute, orain emakumeen ahotsa ere entzuten da, eta egun tailerretan emakume gehiago dago gizonak baino".

Tailerretan hamalau, oholtzaratu eta lau

Maria Isabel Serverak umore handiz kontatu zuen uztailaren 13ko mahai-inguruan Mallorcako glosadore emakumeek ez dutela kontzientzia kolektiborik garatu oraindik, "bi bakarrik garelako". Etorkizunean du esperantza, ordea: "Tailerretan parte-hartzea orekatuago dago, erdi eta erdi izango gara". Zergatik diren bi bakarrik? Azalpena ezagun egingo zaio irakurleari: "Glosaren testuingurua oso maskulinoa zen, gaez eta tabernetan kantatzen zen, eta hor emakumeek ez zuten sarbiderik. Tradizioek gauza on eta txarrak ematen dizkigute, eta hau da horietako bat. Katalunian egoera ezberdina da: transmisio naturala eten egin da, eta kantari zaharrak erreferentzia hartu arren, berrasmatu egin dute. Horren ondorioa da aurtan egin duten sariketako parte hartzea: 8tik 5 emakumeak izan dira".

Kuban ere bere tailerrean gehien-go neskantilak direla kontatu zuen mahai-inguru berean Lópezek, "baina

oholtzarako pausoa ematerakoan, zenbakiak irauli egiten dira". Miren Amurizak horrela azaldu zuen atzerakoa: "Iristen da adin bat bertsolaritza jolasa baino zerbait serioago bilakatzen dena eta nerabezaroarekin gurutzatzen da. Etapa kritikoa izaten da eta neska askok atzera egiten dute. Zer gertatzen da une horretan? Bakoitzak bere beldur eta mugak dauzkagula. Muga hori gainditu dugunok, urteekin beste inprobisatzaile emakumeekin hitz egitean jabetzen gara norberaren beldurrak ez zirela norberarenak, denek bizi izan ditugula. Horregatik da garrantzitsua inprobisatzaile emakumeak elkarrekin biltzea eta gauza hauez hitz egitea. Horrela, atzetik datozei ere bidea errazteko aukera daukagu. Bi bideak egin behar dira, kolektiboa eta bakoitzak berea".

"Garai interesgarrian"

Inprobisazio emanaldi bateko emakume bakarra izateak dakartzan ondorioez aritu ziren. Nagusia: emakumeen bozgorailu bihurtzen dela inprobisatzaile hori, emakume arketipikoa irudikatzen duela, "emakumea" (bat eta bakarra bailitzan). Eta horrek oso bide estua uzten duela norberaren ahotsa garatzeko. Maialen Lujanbiok pozik azaldu zuen Euskal Herrian panorama aldatzen ikusten duela: "Emakume bertsolari kopurua zabalduz doa eta oso emakume desberdinak dauzkagu plazan: duela 40 urte onargarri izango ez lirakeen perfilak ere bai, gainera. Emakume ezberdinak izateak dakar diskurtso, iritzi, kantakera desberdinak plazaratzea. Horregatik, emakumeen arketipo izan den emakume bertsolari hori erlaxatu daiteke, mezu hori emakume gehiagok emango dutelako, eta has gaitezke emakumeen ñabardurak lantzen, ez beti korrekto agertzen, alde itsusiagoak taularatzen... Sortzaile bezala sekulako laisatasuna ematen du, eta sormenerako abaniko kreatiboa zabaltzen".

Poesiak ez du generorik, baina...

Karen Owen da Galesen jendaurrean poesia inprobisatua deklamatzan duen emakume bakanetakoa. Generoa gainditzearan alde mintzatu zen: "Poema irakurtzean inoiz ez dut galdetzen gizon edo emakumeak eginga den. Batzuetan, tradizio maskulinoaren barruan, poesieki darien matxismo eta testosteronaren erdian, galdetzen dut, non geratu da senti-

ZER GERTATZEN DA BERTSOLARIA EMAKUMEA DENEAN?

Jone Miren Hernandezek uztailearen 13an eman zuen hitzaldia. 2008tik ari da bertsolaritza genero ikuspegitik aztertzen, eta argitaratzeaz du bere ikerlana. 1990eko hamarkadan hasi ziren bertsolaritza ikuspuntu horretatik aztertzen duten ikerketak agertzen, eta Hernandezek azaldu zuen denetan badela elementu komun bat: "Translazio bat egiten dutela, gizarteko genero sistemak bertsolaritzan nola islatu diren aztertzen dute". Berak, berriz, Carmen Larrañagak 1994an egin zuen bezala, bertsolaritzaren barruko ikuspegitik aztertu ditu genero elementuak. Bertsoa abiapuntu hartuta, hiru eremu hauek seinalatu zituen:

Bertsoa marko komunikatibo gisa. Joseba Zulaikaren kontzeptua hartu du Hernandezek oinarri: "Zulaikak aipatzen du bertsoak eremu berezi bat sortzen duela, beste marko komunikatibo bat, eta marko horretan, normalean esaten ez direnak esaten direla. Batzuetan oso jakintzat ditugun gauzak ez ditugu egunerokoan esaten, euskaldunak garela eta abar. Bertsoan bai. Gainera, bertsolariak aukera du komunitateari hitz egiteko eta komunitatearen izenean hitz egiteko ('herriaren ahotsa' izateko). Bertsolaria hitzaren, boterearen, kudeatzaile da marko honetan". Jarraian, generoari lotutako



galderak pausatu zituen: "Emakumeak begiratuak izateko eta begira egoteko dira sozializatuak, eta ez euren begiradaren jabe izateko. Hori arazo da kudeatzaile izateko. Bestalde, zergatik ezin du eremu komunikatibo ezohiko horrek emakume/gizon dikotomia ezabatu? Posible da bertsoan bizikleta eta behi izatea, baina generoari buruzko gauza batzuk gainditzea ez. Zergatik?".

Bertsoa eta talde identitatea. Marko komunikatibo berezi horretan, bertsolariak elipsiak kudeatzen dituela azaldu zuen (jakinak diren kontu horiek aipatu gabe utziz). Publikoak paper aktiboa duela gogorarazi zuen, hari dagokiola bertsolariak elipsian utzitakoa betetzea. Baina, "publikoak zer du hutsune horiek betetzeko? Tradizioa. Eta gure tradizioan emakumeak ez du hitzik izan".

Bertsoa ikur moduan, gizarte lotura moduan. "Bertsoa hitzen trukea da. Hitzak boterea irabazi dezan, publikoaren kontsentsua edo adostasuna lortu behar du. Zer gertatzen da bertsoan genero ikuspegia azaleratzen denean? Zer gertatzen da partekatutako ez diren emozio edo nahiak mahai-gaiean jartzen direnean? Halakoetan, emakume bertsolaria sortzen diren deserosotasunen kudeatzaile da".

beratasuna? Ez du zerikusirik generoarekin, poetarekin du zerikusia. Poesiak zer sentimendu eragiten dizkidan, hori da begiratzan dudana. Izan ere, metrika eta errimaz gain, ez dugu ahaztu behar bihotza, bihotzak helarazten gaitu publikoarengana. Baina poemak ez du generorik". Azken esaldi honekin bat egin zuten munduko beste txokoetako inprobisatzaileek, baina Lujanbiok afera konplexuagoa dela zehaztu zuen: "Ados, bertsoak ez dauka generorik, inporta duena bertso ona da. Baina esaldi horretan testuinguru falta da. Bertso ona bada inporta duena, gakoa litzateke zer den bertso ona, eta hor hasiko ginatke testuinguruarekin talkan eta galderak

sortuko lirateke. Bertsin entzuten diren ahots guztiak, bertsoa ematerakoan konfiantza eta sinesmen bera duten denek, ez baldin bada, nondik datorren heziketa hori... Bat-batekotasuna ezin da testuingurutik kanpo aztertu. Emakumeak emakume bezala dituen zailtasunak testuinguruari lotuta daude. Obra da inporta duena, baina norbaitek sortzen du, eta hargatik era batera jasotzen edo entzuten da".

Uztailearen 13ko mahai-inguruan, munduko emakume inprobisatzaileek bizipenak partekatu ostean, arratsaldean, oholtza partekatu zuten. Tabakalerako saio hura ere bizipenetatik hobe aditu zitekeen, hitz hutsetatik baino. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Gaur egungo balada



Xabier Etxaniz Erle



Azken balada MARIASUN LANDA

Erein, 2016
69 orrialde

Euskal baladen artean ezagunetarikoa dugu oreina bilakatu zen neskaren istorioa kontatzen duena, eta balada horixe du oinarri Mariasun Landaren azken lan honek. Baladan, izenburuak dioen bezala, oreina bilakatzen den neska baten istorio tragikoa kontatzen da; anaia ehiztariak harrapatu eta hiltzen duen oreinarena. Mariasun Landak, istorio horretatik abiatuta hiru osagai edo piezaz osaturiko kontakizuna eraiki du, tradizio eta modernitatea, iragana eta oraina lotzen dituen kontakizuna.

“Maitane ia arratsaldero joaten zen Cristina Enea parkera (...) ogi puska batzuk gordetzen zituen parkeko urmaeleko ahateei emateko. Txikitatik ezagutzen zituen eta bakoitzari izen bat ere jarria zien, nahiz eta Erramunek, parkeko udaltzain zaharrak, bere kontura barre egin”. Horrela hasten da *Azken balada* hau; eta irakurleak igarri dezakeen bezala, Maitane neskatoa izango da protagonista nagusia; bera, eta Erramun, parkeko udaltzain zaharra.

Hain zuzen, parkean orein bat ikusi ondoren Erramunek esango dio bi orein ekarri dituztela Iruñeko Takonera parketik: Mayi eta Jakes. “Eta zergatik izen horiek?” neskatoren galderari erantzutearren, udaltzain zaharrak: “Baina, nola, ez al dakin oreina bilakatu zen neskaren istorioa? Eta haren neba ehiztari amorratuari gertatu zitzaiona? (...) Ez zekinat gaur egun zer demontre erakusten duten eskolan!”. Eta horrela, neskatoari, hainbat arratsaldetan, *Oreina bilakatu neska* balada kontatuko dio Erramunek.

Neskaren eta udaltzainaren arteko harreman horrez gain Maitaneren egunerokoak ere

ezagutuko ditu irakurleak. Hots, gaur egungo kontakizun baten barruan balada zaharren berri ematen zaigu. Baladaren amaiera tragikoak, baina, ez du erabat betetzen neskatoren gogoia eta “Utzidazu pentsatzen...–erantzun zion Maitanek deliberatzen arituko balitz bezala–. Agian bihar irtenbide bat erakutsiko dizut, idatziko dut Mayirentzako beste ipuin bat”. Eta, hain zuzen, horixe dugu liburuaren amaieran ageri zaiguna, balada zahararen bertsio berri bat, ezberdina, askoz berriagoa (testuingurua, gertakariak...) eta alde horretatik are hurbilagoa gerta dakiokeena oraingo irakurleari. Izan ere, Mariasun Landaren liburu honek, dituen bertuteen artean (arin irakurtzea, istorioari jarraitzeko gogoia, gaurko eguneko kontuen inguruko gogoia bultzatzea, sinesgarritasuna...) bada bat azpimarratzeko modukoa, ahozko tradizioa hurbiltzea, oraingo irakurleei ekartzea eta harekin jolastuz testu berriak eskaintzea.

Liburu guztiz gomendagarria da Landaren azken balada hau, azken kontakizun hau; tragediatik, abenturatik, tradizioetik, maitasunetik eta umoretik, besteak beste, hartzen duelako. Baita idazleari berari buruzko keinu sinpatikoa amaieran: “Auzokoa da eta liburu asko idatzi ditu, Mariasun Landa du izena... Ezagutzen al duzu?”. ■



Mariasun Landa
idazle erreteriarra.

» **TELEGRAMA**

Sekulako egitaraua prestatu dute Erretereria-Oreretan aurtengo Madalen jaietarako: uztailaren 21etik 25era txosnagunean jai eredu parte hartzailearen aldeko apustua egingo dute. Kontzertuen alorrean, **Anestesia, Liher, Revolutionary Brothers** eta **Sorkun** besteak beste **STOP Estricalla** taldeak *Dramatik-thlon* disko berria argiratu du eta zuzenean sasoiko dabiltzala erakutsi nahi dute: Soralezeko gaztetxea, uztailak 23. Ez galdu! **STOP** Aurtengo **Errobiko festibala** interesgarri dator: uztailaren 21etik 24ra Itsasun izango dira Danyel Waro, Angeliq Inatos, Joseba Irazoki eta Beñat Axiari, besteak beste **STOP**

» **KONTZERTUAK**

Abuztuko ibilbide musikala



Montse Auzmendi

Mozart, Vivaldi eta abar...

GENEVAKO ANTZOKIKO BALLETA /
BUDAPESTEKO FESTIVAL ORCHESTRA /
EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA...

Andreas Prittwitz and Lookingback Septet eta
Brillant Magnus Quintet taldeak...

Musikazaleok badugu, urtero bezala, hitzordu berezi bat Donostiako Musika Hamabostaldian. Krisiak jota eta guzti, jaialdi honek mantentzen ditu betiko kalitate maila, proposamen interesgarriak eta publikoarentzako ziklo erakargarriak.

Aurtengo edizioak harribitxi batzuk eskaintzen ditu, hala nola, Mozarten *Don Giovanni* opera; Genevako Antzokiko Balleta *Tristan eta Isolda* antzetzuz; edo orkestra-izarrak diren Budapest Festival Orchestra eta Frankfurt-eko Irratiko Orkestra Sinfonikoa. Halere, ziklo handietan ez dut sakonduko. Asko

hitz egin eta idatziko da aipatutako saioei buruz. Nire arreta zentratuko da Hamabostaldiak dituen altxor ezkutu batzuetan, musikaz eta gauza gehiagoz disfrutatzeke aukera ematen digutenak. Musika Aitzaki zikloak badu izenburuan bere motibazioa. Musika, saio hauen mui-

na izanik, bidea da gure herria ezagutzeko. Beretik mami-tua da ziklo hau aurtengo edizioan.

Gure kostaldea bisitatzeke parada izango

Ara Malikian biolin-jotzaile armeniarrek abuztuaren 25ean Arantzazun joko du.

dugu: Hondarribia, Zumaia, Mutriku, Deba, Orio, Getaria eta Pasai San Pedron kontzertu eta jarduera interesgarriak aurkitzen ditugu egitarauan. Oso erakargarria iruditzen zait, adibidez, abuztuaren 20an Debatik Mutrikuko Olatz auzoraino egingo den txangoa, Santiago Bideak Gipuzkoan duen itsasaldeko ibilbidea burutzeko. Naturaz gozatzeaz gain, musika protagonista izango da une ezberdinetan.

Bitxia izango da, baita ere, Hondarribiko Hiruzta Upategian abuztuaren 10ean eskainiko den *Zambra barrokoa* saioa, Andreas Prittwitz and Lookingback Septet taldearen eskutik. Musika barrokoaren ikuspegi berritzaile bat disfrutatzeke aukera izango dugu, baina horri ondoren izango den afaria gehitzen badiogu, hitzordu mundiala bihurtuko da, dudarik gabe.

Esan bezala, kostaldeko hainbat herritan izango dira Hamabostaldiko jarduerak. Baina hortik aparte, beste leku batzuk bisitatzeke aukera izango dugu. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Senperen arituko da abuztuaren 19an Mozart eta Vivaldiren obrak joaz. Musika barrokoarekin jarraituko dugu Leireko Monasterioan izango den saioan, Brillant Magnus Quintet taldearen eskutik, abuztuaren 20an. Eta abuztuaren 25ean Arantzazura iritsiko da Ara Malikian biolin jotzaile armeniarren 15 izeneko espektakulua, musika klasikoa eta herri-musikaren moldaketak urtuz. Ez galdu aukera paregabe hauek. ■



Gasteizko beste jazzaldia

JAZZAHARREAN

Duela hamaika urte ekin zioten taberna batzuek Jazzaharrean jaialdiari. Aurtengo edizioa ekainaren 28tik uztailaren 8ra izan da eta 20 emanalditik gora egin dira.



Jon Aranburu Artano
@jonaranburu

Jazza, uda, jaialdiak... inguruan askotan ikusi dugun ekuazioa da. Jazz jaialdiak imajinatzen ditugu jendez betetako plaza, estadio, hondartza edo dena delako guneetan egiten diren emanaldi moduan. Gehienetan diru publikoz ongi zuzkituak, goi mailako artistak ekarri asmo eta uste dituzten jaialditzarrak. Herrikoitik gutxi duten jaialdiak, bertako musikariek duten karitatezko tokitik hasi eta sarreraren prezioetaraino.

Bada Gasteizko alde zaharreko Jazzaharrean jaialdia honi kontra egiteko modu bat ere. Duela 11 urte Asisko Frantziskoren kantoiko taberna batzuk batuta sortu zuten jaialdia, nolabait ere, uztail hasieran egiten zen Gasteizko Jazzaldiaren elitismo horren alternatiba herrikoia moduan. Herrikoia goa kontzertuak tabernetan egiten direlako edota kalean, sarrerarik ez delako ordaindu behar, eta beste jaialdietako karteletan ikusten ez diren inguruko musikariak direlako kartelaren mami.

Aitortuko dizuet beti harritu izan nauela jazz jaialdien fenomeno honek. Nola den kapaza urtean zehar kontzertu bat ikustera, eta are gutxiago jazz kontzertu batera, inguratzen ez den jendea masan mugitzeko. Eta masa mugimendu horrek Jazzaharreani ere eragin dio, askotan kontzertuetara ezin sartuta ibiltzeraino.

Aurtengo edizioari hasiera Parral tabernan eman zitzaion Tenpora taldearen kontzertuarekin. Popetik gertuagoko kantuak dira, nahiz eta jazz kutsuabaduten. Izen ezagunak daude, gainera,



Cosmosoul taldekoen emanaldia Parralen.

DOSPORDOS

taldean: Hasier Oleaga edo Juantxo Zerberio, esaterako. 2015ean kaleratutako *Mundu Berria* laneko kantuak jo zituzten batez ere, Harkaitz Cano eta Karlos Linazasororen hitzak dituztenak.


Cosmosoul taldekoak, berriz, uztailaren 5ean aritu ziren; hauek ere, Parral tabernan, eta tabernara ezin sarturik ibili baginen ere, soul eta funk kutsuko kantu dotoreak zirela nabaritu genuen, ataritik.

Zortez, hurrengo egunean bertako kantari eta piano-jolea ikusi ahal izan genituen Gorbea Bodegoiaren terrazan Calzzeta-Sinkey duo izenpean. Alana Sinkey-ren ahotsa benetan nabarmentzekoa iruditu zitzaigun, bandarik behar izan gabe ere plaza bera betetzen baitzuen elegantzia handiz.

Eta elegantzia aipatuta, aipatzekoa RS Faktorek uztailaren 7an Artiumen eskainitako kontzertua. Etxekoa da Ruben Salvador, eta gustura entzun genuen bere *Akufeno* lan berriko kantuak aurkezten, esperientzia pertsonaletatik abiatutako jazz garaikideko pieza dotoreak.

Bi astez Gasteizko alde zaharra eta inguruko kantoiak jazzez josi zaizkigu. Aipatu gabeko kontzertuak gehiago izan dira, guztietara joaterik ere ez baitugu izan. Eta penaz diot, ze ikusiko genituzkeen Dani Perez eta Jordi Bonell-en duoa, Azkaiter Pelox trioko lagunak, edota bertako musikariz osatutako Muchachos Afrobeat Band-ekoak. Espero dezagun datorren urtea baino lehen ikusi ahal izatea. ■

Txelio Alcántara. Zaharkitzapenari adabakiak jartzen



Bilbo, 1957. Kalean etxetresna elektrikoak konpontzen hasi zen. Gaur egun ere horixe egiten du, baina Bizkaiko kooperatiba batean. “Proiektu konplikatua izan zen, inon ez dizute irakasten hau nola egin”. Edukiontzia zurietan eta Garbiguneetan bildutako tresnak berrerabili ahal izateko prestatzen ditu. Honelaxe azaldu digu zergatik irauten duten gero eta laburrago inguratzen gaituzten hamaika gailuek.

“Ez esan niri 2016an ez garela gai bizitza osoa iraungo duen garbigailu bat egiteko”



Unai Brea

@unaibrea

ARGAZKIAK: IÑIGO AZKONA

Erraustegia

“Bizkaiko erraustegiaren aurkako borroka eraman ninduen Ekologistak Martxaneko kide izatera. Erandion egiteko asmoa zabaldu zutenean, elkarterko hondakinen lantaldean izena eman nuen, eta hor nabil oraindik. Garai hartan, duela hamabost urte inguru, protesta handiak egin genituen Erandion, orain Gipuzkoa Zutik-en ikusten direnen antzekoak, baina erraustegi proiektua orain dagoen lekura eraman zutenean ez ginen gai izan mobilizazioa ere lekuz aldatzeko. Oso jokaldi ona egin zuten”.

Asko hitz egiten da zaharkitzapen programatuaz. Zuk eguneroko jardunean ikusten duzu.

Bada denbora zaharkitzapen programatuaz bideo bat zabaldu zela. Hor esaten zen bazeudela inprimagailuak, orri kopuru zehatz batera iritsita gehiago ez funtzionatzeko programatuta zeudenak. Hemen ikusten duguna ez da zaharkitzapen programatua: zaharkitzapena da, besterik gabe. “Ez dakit zenbat garbialdi egin eta gero ikuzgailua matxuratu egingo da” esatea fantasiakoa da. Baina egia da gailu bakoitzak urte kopuru bat funtzionatzeko aurreikusita dagoela.

Zergatik?

Zuk gailu bat fabrikatzen duzunean, aurreikus dezakezu denbora batez funtzionatuko duela; erabilitako materialak eskasak badira, iraupena laburra izango da. Gaur egun kostuak merkatzea da helburua, mundu honetan gauza merkeak baitira saltzen direnak. Eta gauza merkeak labor iraungo du. Begiratu hozkailuari eta kablea laborra bada, badakizu hozkailua txarra dela.

A, bai?

Kablean aurrezten badute, gainerakoan ere bai. Hemen esan ohi dugu pisuaren arabera jakiten dela garbigailu bat ona ala txarra den. Xaflan dirua inbertitu badute, bestean ere bai. Fabrikatzeko era da gakoa. Arazoa ez da programatutako zaharkitzapena; gauza guztiek dute zaharkitzapena. Arazoa da inolako kontrolik ez dugula.

Zeren gainean?

Fabrikazioa, kalitatea... Kontrol hori gabe, zuk gailua erosi eta ez dakizu zenbat iraungo dizun. Inork ez dizu bermerik ematen horri buruz. Arauak ezarri beharko liriteke, “honek hainbeste iraun dezan konprometitzen naiz”. Eta bada zaharkitzapenaren beste alderdi bat, ezkutuagoa: matxurak. Konponbiderik ez dutenak, edo konpontzeko garestiegiak direnak. Baimenduta dago gailu konponezinak fabrikatzea.

Konponezinak?

Edozein etxetresna txiki konpontze-



“Gaur egun baimenduta dago konponbiderik ez duten edo konpontzea garestiegia den gailuak fabrikatzea. Arazoa da inolako kontrolik ez dugula”.

ko giltza mordoan izan beharko zenuke etxean; beharko dituzun bihurkinak bilatze hutsak zoratu egingo zaitu. Eta batzuetan, kendu ezin daitekeen torlojuarekin egingo duzu topo: edo giltza berezia behar du, edo estutu daiteke baina askatu ez.

Askotan gertatzen da hori?

Bai. Etxetresna txiki batzuk ezin dira desmuntatu ere egin.

Niri horrek “programatu” adjektiboa dakarkit gogora, bada.

Ez da programatua, hitzari ematen zaion eta arestian aipatu dudan esanahi horrekin. Baina aurreikusita dago: gailuak labur iraungo du.

Txikia da konpongarritasuna, oro har?

Gero eta txikiagoa. Adibide bat: orain 20 edo 40 urteko hozkailuak atalez atal desmuntatu zitezkeen, oso-osorik. Gaur egun, berriz, gas hodia ezin da bereizi, hozkailuaren gorputzaren barruan dagoelako. Eta gas-hodiaren matxura da hozkailu batek izan dezakeen matxura larriena. Gertatuz gero, gaur egun ez dago konpontzerik.

Asko esatea dirudi gailuak konponezinak izateko egiten dela hori...

Bada, argi dago hala dela!

Zer helbururekin?

Gehiago saltzea. Gehiago saltzeko helburua duen sistema kapitalista batean bizi gara.

Zer dio legediak?

Gaur egun efizientzia energetikoa arautzen da, hori da mezua. Efizientziak iraunkortasuna estaltzen du. Kalkulua egin genuen kide batek eta biok: energi efizientzia handieneko hozkailua erosten baduzu, hainbesteko efizientzia ez duen gailua baino 100 euro inguru gehiago ordainduko duzu. Eta urtero 10 euro aurretuko duzu kontsumoan. Prezio diferentzia berdintzeko hamar urte iraun behar dizu hozkailuak, eta ez da hala izango.

Berrerabilpena birziklatzearen aurretik...

Hori da zaharkitzapenaren aurka borrokatzeko modu bakarra. Ingurumenaren aldetik, asko aurretzen da berreskuratutako garbigailua erosiz, berria erostearekin alderatuta. Ez naiz gogoratzen zifra zehatzez, baina kalkulatuta dugu berres-

kuratutako gailu bakoitzeko CO2 kopuru esanguratsua igortzeari uzten diogula.

Nola sustatu daiteke berrerabilpena?


Espainiako Estatuan bada lege bat, baztertutako etxetresnen –ez guztien– %2 berrerabiltzeko helburua ezartzen duena 2017rako. Oso gutxi da, guk %5 eskatzen genuen, baina garrantzitsua da hastea.

Zer portzentajetan gaude orain?

Hutsaren hurrengoan. Ez baitago beharrik tresnak konponketa-gune honetara edo antzeko batera eramateko. Saltoki handiek, gailu bat saldu eta zaharra jasotzen dutenean, hona ekarri behar lukete, baina txartategira eramaten dute. Han birrindu egiten da, eta kito. Gero, industria-ra joaten da txatarra hori. Zuzenean birziklatzera joaten dira, berrerabilpenetik igaro gabe.

Amaitzeko: nork esan behar du zenbat iraun behar duten gauzek?

Gauzek nahi beste iraun dezakete. Lehenbiziko garbigailu patentea orain dela 300 urte aurkeztu zuten. Ez esan niri 2016an ez garela gai bizitza osoa iraungo duen garbigailu bat –hain gauza sinplea!– egiteko. ■



Eneko Goia: "Donostiakoak ez dira zezenketak, pintxo handiak baizik"

Donostiako alkateak gezurtatu egin du Aste Nagusian zezenketak antolatu dituztenik eta harrituta agertu da herritarrek gai horri buruz hitz egiten ari direla ikusita. "Mesedez, nola antolatuko genuen guk halakorik? Pintxo lehiaketa batekin nahasten ari zarete. Egia da zezen plaza batean egingo dela, sukaldariak nahiko arraro jantzita etorriko direla, jakia prestatu aurretik animalia torturatu eta hil egingo dutela jendeak txalo egiten duen bitartean eta hori ikusteagatik sarrera kobratuko dela. Baina gainerakoan, ez dauka zezenketekin zerikusirik". Donostiako ostalaritzako iturriek aurreratu dutenez, tabernetako barrei errefortzu bereziak jarriko dizkiete zezen pintxoek hautsi ez ditzaten. Zezen formako letxugak plazan torturatzea ere aztertzen ari dira. "Menu beganoa oso modan dago", esplikatu du Mikel Ubarriotxino ostalariak.



AZTERKETA SOZIOLOGIKOA! Turista katalanek argi dute: euskal herritarrok gara independentistenak

Hasi da opor sasoa eta turista katalanak saldoka ditugu Euskal Herrian eta gure harridurarako, Baskitisaren gaintza sendatu gabe dagoela berretsi digute. "Pozgarria da behatzea Euskal Herriak, paisaia eta gastronomia bikainei ez ezik eusten diola oraindik Espainiako Estatutik berezi nahi duten herrien abangoardia izateari", plazaratu du Cesc Punyotancat, Bartzelonako Gràcia Zarautzen as-tebetex ematera etorri den independentzia zale sutsuak.

Ez da irudipen hori izan duen bakarra. Laia Casadelpuicheron gironatar peto-petoaren berbetan, "Katalunian geure zilborrari begira bizi gara azken aspaldian, pentsatuz geu garela Madrili koskabiloak ukitzen txapeldunak, baina hona etorri eta konturatu naiz asko dugula oraindik euskaldunez ikasteko". Burua eta gora eta behera mugituz baietz dio Oriol Pantumatx mutil-lagunak: "Bistan da pertsona bakarra guztien errenda ordaintzeko gai den herri batek sekulako barne-kohesioa duela, horregatik zaudete independentziaz hain gertu, inor konturatu ez arren. Ezta zuek ere".

Euskal Herriko Guk Beti Bat Gehiago mugimenduak, ezohiko biltzarra egin eta gero, honako analisia kaleratu du gaiari buruz: "Ikusten? Esan genizuen!".

Esadazu tragedia non gertatu den eta esango dizut zer axola zaidan...



ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
HERRIEN MUNDUA
HEZKUNTZA ERALDATZAILEA
EUSKALTALETASUNA
EKONOMIA SOZIALA
ELIKADURA BURUJABETZA
| **INGURUMENA** —————
INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilero ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.



Bestelako mundu bat amesten dugu ARGIA n, ekonomia klasikoaren kontzeptuak edozeren gainera kokatuz ingurumena arriskuan ipintzen ez duen jendartea. Horregatik, berebiziko arreta eskaintzen diegu mundu jasangarri baten alde Euskal Herrian eta munduan egiten diren ekimenei, eta ez hori bakarrik: gu ere ahalegintzen gara, geure egunerokoan, balore horiek txertatu eta sustatzen.

UZTAILEKO ZOZKETAK



Cristina Enea fundazioaren Hazien ugalketari buruzko eskuliburua (5 liburu)

www.cristinaenea.org/haziera



Ekologistak Martxan-en materiala (5 saski)

www.ekologistakmartxan.org



ENEK-en materiala eta Ekolurra harpidetza (5 saski)

www.eneek.org

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545

gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

JAKOBA ERREKONDOREN LIBURU BERRIA

Jakoba Errekondoren "BIZI BARATZEA" liburutik abiatuta, baratzea mundu askotarako ataria da. Oraingoan irudia eta komikia nagusi. Zortzi komikigile handien eskutik: Antton Olariaga, Asisko, Ainara Azpiazu, Mattin Martiarena, Joseba Larratxe, Zaldieroa, Unai Gaztelumendi eta Unai Iturriaga. Maialen Lujanbioren sarrerarekin



ESKURA EZAZU AGORTU BAINO LEHEN

© 943 371 545
www.argia.eus/denda
denda@argia.eus

 ARGIA
argia.eus

BIZI
BARATZEA
bizibaratzea.eus